

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2018 – 2019 ikasturtea

**TRANSEXUALITATEAREN
ERREALITATEA IKASGELARA
HURBILTZEN**

Egilea: Ane Ibarondo Bolumburu

Zuzendaria: Joana Jauregizar Alboniga-Mayor

Leioan, 2019ko maiatzaren 26an

AURKIBIDEA

SARRERA	5
1. MARKO TEORIKOA	6
1.1. Kontzeptuak argitzen.....	6
1.1.1. Sexua.....	6
1.1.2. Generoa.....	6
1.1.3. Generoaren identifikazioa.....	7
1.1.4. Generoaren rola.....	7
1.1.5. Sistema bitarra	7
1.1.6. Hetero-araua.....	8
1.1.7. Transgeneroa.....	8
1.1.8. Transexualitatea	8
1.2. Transexualitatearen trataera historian zehar	9
1.2.1. Transexualitatea: betidanik existitu izan den kontzeptua?.....	9
1.2.2. Transexualitatea medikuntzaren ikuspegitik.....	10
1.2.3. Transexualitatea zuzenbidearen ikuspegitik	10
1.2.4. Transexualitatea hezkuntza ikuspegitik.....	11
2. MARKO PRAKTIKOA	13
2.1. Metodologia	13
2.2. Esku-hartzea	14
2.3. Saioak	21
3. ONDORIOAK	21
4. ERREFERENTZIAK	24
5. ERANSKINAK	27
5.1. Esku-hartzean egingo diren saioak	27
5.2. Kronograma	50

5.3. Fitxak..... 51

TRANSEXUALITATEAREN ERREALITATEA IKASGELARA HURBILTZEN**Ane Ibarrondo Bolumburu**

UPV/EHU

Begi-bistan dago gaur eguneko gizartean genero aniztasuna gero eta ikusgarriagoa dela, hala ere, normatibatik at gelditzen diren talde hauek oraindik ere diskriminazioa jasaten dute eta sarritan, diskriminazio hau eskola eremuetara transferitzen da. Horretarako, transexualitatea hezkuntza sisteman lantzen ez den heinean, gaiaren inguruko proposamen didaktikoa egitea erabaki da, izan ere, dokumentu osoan zehar, hezkuntza egoerari aurre egiteko tresna sendo moduan tratatua izango da. Transexualitatearen errealitatea ikasgeletara hurbiltzeko eta gaiarekiko enpatia eta errespetua erakustearren helburuarekin, Lehen Hezkuntza seigarren mailara bideratutako 13 saioz osotuta dagoen proposamen didaktikoa sortu da.

Transexualitatea, Transfobia, Generoa, Genero rolak, Sexua

Hoy en día, la diversidad de género se está haciendo cada vez más visible, aunque es evidente que los grupos que están fuera de la normativa siguen siendo discriminados, y con frecuencia esta discriminación se transfiere a las áreas escolares. Así, como la transexualidad no se aborda en el sistema educativo, se decide hacer una propuesta didáctica sobre el tema, ya que, a lo largo del documento se tratará como una herramienta poderosa para enfrentar esta situación desde la educación. Con el fin de acercar la realidad de la transexualidad y mostrar empatía y respeto por el tema, se ha diseñado una propuesta didáctica basada en 13 sesiones dedicadas al sexto grado de Educación Primaria.

Transexualidad, Transfobia, Género, Roles de Género, Sexo

It is obvious that, in today's society, gender diversity is becoming more and more visible, although it is evident that groups that are outside the norm continue to be discriminated, and this discrimination is often transferred to school areas. Thus, as transexuality is not addressed in the education system, a didactic proposal on the subject is presented, since throughout the document it will be treated as a powerful tool to confront this educational situation. In order to approach the reality of transexuality and show empathy and respect for the subject, a didactic proposal has been designed which is based on 13 sessions dedicated to the sixth grade of Primary Education.

Transsexuality, Transphobia, Gender, Gender Roles, Sex

SARRERA

Denboran zehar normatibatik kanpo dauden talde sozialak existitu izan dira, oraindik ere existitzen direnak, eta horien artean transexualitatea da taldeetako bat. Aurrerago irakurri ahal izango den moduan, historian zehar betidanik existitu izan den errealitatea da. Hala ere, diskriminatuak izan dira, eta nahiz eta berdintasunaren aldeko aurrera pausuak eman diren arren, oraindik ere lan handia dago egiteko minorizatuak eta diskriminatuak diren talde hauen gizarteratzea bete-betean emateko, izan ere, gizarateak berak trabak jartzen ditu betiketuta dauden arau eta rolekin.

Aipatutako diskriminazioa, sarritan, eskola eremuetara igarotzen da, eta hezkuntza gizartea aldatzen hasteko arma garrantzitsua den heinean, transexualitatea ikasgelara hurbiltzeko eta lantzeko esku-hartzea garatu da. Horretarako guztirako, lehenik eta behin oinarri teoriko sendoa izatea garrantzitsua da, eta hainbat adituk eta profesionalek esaten dutena aintzat hartzeak, marko teorikoa garatzea posiblea egin du.

Lan honekin, beraz, honako hau lantzea da xedea: helburu eta ardatz nagusi moduan transexualitatea izanik, proposamen didaktikoa genero rolekin eta sexuarekin hasiko da, transexualitateraino hurbildu arte. Hau da, ikasleek bereganatuta dituzten roletik hasita lortuko da transexualitatearen errealitatea ikasgelara hurbiltzea.

Lan honekin lortu nahi den xede orokorra zehaztuta egongo da, baina aipatutako xede hau lortzeko zenbait helburu espezifiko ezinbestekoak izango dira. Hala ere, hauek guztiak bereganatuak izan daitezten, metodologia espezifikoa jarraitzea garrantzitsua da, eta baita hauek ebaluatzeko ebaluazio tresnak ere. Hau guztia, esku-hartzea azaltzen den taulan irakurgai dago.

Azkenik, lana egitetik atera diren zenbait ondorio idatzi dira. Batetik, transexualitatea lantzearen garrantzia aipatzen da. Bestetik, lana egitean gainditu behar izan diren oztopoei erreferentzia egingo zaie, eta azkenik, zenbait lerrotan balorazio pertsonala irakurtzeko aukera izango duzue. Horretaz gain, lana egiteko beharrezkoa izan den errebisio bibliografikoa idatzita egongo da, izan ere, makina bat artikulua eta liburu irakurri dira dokumentua osatu ahal izateko.

Esan beharra dago ere, eranskinen atalean, saio guztiak sakonki azalduta egongo direla, eta gainera, hauek osatu ahal izateko beharrezko fitxak ere sortu behar izan dira.

1. MARKO TEORIKOA

1.1. Kontzeptuak argitzen

Transexualitatearen errealitateari aurre egiteko, lehendabizi, garrantzitsua da kontzeptuarekin lotutako zenbait ideia argitzea, bada, hain da nabaria gaiarekiko sentsibilitatea lagungarri izango direla terminoa ulertzeko. Hori dela eta, hurrengo kontzeptu hauek argituko dira: sexua, generoa, generoaren identifikazioa, generoaren rola, sistema bitarra, hetero-araua, transgeneroa eta transexualitatea.

1.1.1. Sexua

Sexu hitzaren jatorria latinetik datorren “*sexus*” hitzean topa dezakegu eta banaketa esan nahi du (Stryker, 2017). Ukaezina da gizon-emakumeen artean desberdintasun biologikoak existitu egiten direla. Erreproduzio aparatuak desberdinak dira, eta hauek funtzio desberdinak burutzen dituzte (Harris, 2005). Beraz, sexuaren identifikazioa ezaugarri biologikoen arabera da eta bizitzaren lehenengo urteetan identifikatua izateaz gain femenino eta maskulinoaren arteko sailkapenerako motibo ere bada (López Sánchez, 2009). Hala ere, horrek ez du frogatzen horrekin batera gaitasun, ahalmen edo jokamodu zehatz batzuk garatzen direla; hori generoak eragiten du (Subirats, 1994).

Bestalde, sexu mota desberdinak bereiz daitezke: sexu biologikoa, sexu psikologikoa eta sexu soziala. Biologikoa organismoa osatzen duten elementu sexual guztiek osatzen dute (Consejería de familia y asuntos sociales de la Comunidad de Madrid, 2006). Sexu soziala, Fernandezek (2010) bere doktore tesian aipatzen duen moduan, gizartea osatzen duten rol edota arauekin estu lotuta dago, bada, zenbait portamen gizonzkoiei eta beste zenbait emakumezkoiei esleitzen zaizkie. Azkenik, López-Galiachok (1998) definitzen duenaren arabera, gizabanakoak gizonzko edota emakumezko sentitzearen kontzientzia dauka. Eskuarki, sexu psikologikoa eta biologikoa norabide berean bideratzen dira. Hala ere, gerta daiteke subjektuarengan sexuen arteko disoziazioa ematea, kasu horretan, beste errealitate askoren artean, transexualitatea eman daiteke (López-Galiacho, 1998).

1.1.2. Generoa

Genero terminoa latineko “*genus*” hitzetik dator, eta “maila” edo “mota” esan nahi du. Kontzeptu honek taldekidegoaren eraketa sozialari egiten dio erreferentzia, horrela jendea kategoria desberdinetan kokatzen dela. Hortaz, sexu eta genero hitzek ez dute esanahi bera, generoa kulturala den bitartean sexua biologikoa, soziala eta psikologikoa da (Stryker, 2017). De Torok (2015) bere artikuluan aipatzen duen moduan, kultura eta

denboraldi historikoak aldatuz joan dira, eta horrekin batera baita “emakume” eta “gizon” hitzei atxikitzen zaizkien ezaugarriak ere.

1.1.3. Generoaren identifikazioa

Pertsona bakoitzak generoari dagokion kategoria batean zein bestean ahokatzen denaren (edo ez) hautemate subjektiboa du, hori da hain zuzen generoaren identifikazioa. Gizartean parte hartzen duen gehiengoarentzat adostasuna egoten da jaiotzean atxikitu zaion kategoria eta gizartearen eraginak bultzatuta atxikitu zaion kategoriaren artean. Honen harira, esan beharra dago transexualek teoria hori hautsi egiten dutela, izan ere posible da jaiotzean esleitzen den eta sentitzen denaren kategorien artean desadostasuna gertatzea (Stryker, 2017).

Generoaren identitatea (emakume edo gizonetzko izatearen sentimendua), prozesu afektibo eta kognitibo luzea da. Prozesu hau, haurtzaroan hasten da eta gaztaroan mailaz maila garatuz doa, pixkanaka, generoaren rol sozialak errepikatuz eta hurbileko ingurunearekiko interakzioak direla medio (Soley-Beltran, 2009, Noseda, 2012an aipatua). Espezialista askoren ustetan, generoaren identitatea 2 eta 4 urte bitartean erdietsi egiten da, eta transexualek ere urte horietan lortzen dute identitatea (Gavilán, 2016).

1.1.4. Generoaren rola

Genero rolak gizartean jada ezarrita dauden arauak dira, bi sexuentzat erregelak desberdinak direla (Herrera, 2000). Zehatzago esanda, biztanleria bi generotan banatzen da, eta hauen rolak, jaio aurretik ezarrita daude (Stee-eilas, 2015); benetan, bizi garen sozietate honetan denari esleitzen zaio genero bat. Hauek izan daitezke adibide argienak: jostailuak, koloreak, arropak eta jarrerak (Brill eta Pepper, 2008, De Toro, 2015ean aipatua).

Stryker-ek (2017) bere liburuan ezin hobeto ematen dio generoaren rolari definizioa. Termino honek gizartean kulturalki ezarrita dauden ohiturei, sinesmenen erlijiosoei edo eta errotuta dauden aurreiritziei egiten die erreferentzia, baina ez edozein modutan, izan ere, erantzun desberdinak espero dira generoa bata ala bestea zein den kontuan hartuta. Are gehiago, preskribatuta dauden hauek betetzen ez badira, kontzeptu honek gogorarazten du emakume edo gizon moduan porrot egingo litzatekela (Stryker, 2017).

1.1.5. Sistema bitarra

Sistema bitarra gizonetzkoaren eta emakumezkoaren banaketa sexualean datza.

Sailkapen honek bi eredu ditu eta hauetatik kanpo geratzen den guztia baztertuta gelditzen da (Stee-eilas, 2015).

Bi sexu identifikatzen dituen sistema bitar eta (hetero)sexista honek, ez du hirugarren hautabide bat posible egiten eta transexualak gizarteko arazotzat azaltzen ditu (Puche, Moreno eta Pichardo, 2012). Generoak sistema arauemailea sortzen du, eta arau horietara egokitzen ez den guztiak aurreikusitako zigorra jasotzen du (Mas Grau, 2015).

1.1.6. Hetero-araua

Gure gizarteak sistema bitarra du oinarrian, zeinetan gizon eta emakume heterosexualak aurrez ikusten diren. Horretaz gain, azaleko kolore zuria, klase ertaina eta familia tradizionalaren ereduak izan da aurkeztu diguten bakarra. Alegia, gure inguruak, harremanak osatzeko patriarkatuan oinarritzen den modelo tradizionala ezartzen digu, sexualitateak, ordea, eredu tradizionalarekin zerikusirik ez duenean (Stee-eilas, 2015).

Desioaren hetero-sexualizazioak feminitatearen eta maskulinitatearen arteko oposizio asimetrikoa inposatzen du, atributu hauek “gizonezkoak” eta “emakumezkoak” izendatzen dituztela. Gainera, gizarteak zenbait identitate ingurunetik at uzten ditu, hala gertatzen da generoa sexuaren ondorio ez dela sentitzen duten gizabanakoen kasua (Butler, 2007).

1.1.7. Transgeneroa

Begirada bi hamarkada atzera bota ezkerreko, transgenero hitza ezagutarazten hasi zela konturatuko gara, eta oraindik ere, kontzeptuaren esanahia garatuz doa (Stryker, 2017).

Jaiotzean esleituriko generoarekin desadostasuna agertzen dutenak dira, eta honen harira, sistema bitarra ukatzen da, hots, ez emakume ezta gizonaren ereduarekin identifikatzen direnak. Normalki, gustuko generora adaptatzeko ez da kirurgiarik egiten (Stee-eilas, 2015).

1.1.8. Transexualitatea

Transexualitatea gero eta entzunago eta ikusiago den errealitatea izan arren, duela hamarkada gutxira arte ez da modu positiboan ikusia izan (Spade, 2015). Medikuntzarekin lotutako literaturan, 1923an agertu zen lehen aldiz Hirschfeld-en lanetan, baina, ez zuen homosexualitate afeminatuaren eta transexualitatea bereizketarik egiten. Bestalde, 1940an, transexualitate hitzak egun daukan konnotazioa hartuz joan zen (Becerra, 2003); genero identifikazioaren eta jaiotzean ezarritako sexuaren artean eman

daitekeen desadostasunik handiena da transexualitatea (Rica, Grau, Rodriguez eta Vela, 2015).

Jaiotzerakoan atxikitzen zaion generoarekin ados ez dagoenari esaten zaio transexuala. Hori dela eta, prozesu kirurgiko, hormonal zein psikologikoa jasotzera derrigortuta dago (Stee-eilas, 2015).

1.2. Transexualitatearen trataera historian zehar

1.2.1. Transexualitatea: betidanik existitu izan den kontzeptua?

Genero identitate kontzeptuak eta endokrinologia eta kirurgia plastikoan egindako garapenek, oinarri teknologiko eta ideologiko emankorrak eskaini dituzte transexualitatearen sorrerarako (Mas Grau, 2015). XX. mendearen 60. hamarkadan Harry Benjamin endokrinologoak terminoa ezagutzera eman zuen definizio honekin: “deseo irreversible de pertenecer al sexo contrario al genéricamente establecido y de asumir el correspondiente rol, además de solicitar un tratamiento hormonal y quirúrgico para corregir la discordancia entre la mente y el cuerpo” (Benjamin, 1996:30 or., Mas Grau, 2015ean aipatua).

López-Galiachok baieztatzen zuen moduan, ezin daiteke esan transexualitatea garai hartako fenomeno zenik, ezta gure kulturaren bereizgarria zen hitza zenik ere. Aitzitik, aintzinetik existitu izan dira aurkako sexuarekin identifikatuak sentitu izan diren gizabanakoak (López-Galiacho, 1998).

Posiblea litzateke, beraz, transexualitatearen existentzia beste garai eta mendebaldeko historia batzuetan presente zegoela baieztatzea? Transexualitatearen inguruan aritutako literaturak egon bazeuden. Izan ere, asko ziren berpizkunde garaian gizonez janzten ziren emakumeak, eta gutxiago baziren ere, baita emakumez janzten ziren gizonezkoak ere (Bento, 2010).

Hortaz, esan genezake modu ezberdinean izan bada ere, transexualitatea gizarte eta kultura orotan existitu izan dela (Gavilán, 2016). Haatik, transexualismoa, gorputz ez normatiboak eta bestelako talde minorizatuak urte askotan zehar lotsa, samintasun eta oinaze terminoen parean jarri izan dira (Stee-eilas, 2015). Are gehiago, gizonezko eta emakumezko transexualek bazterketa zorian dauden taldeetako bat osatzen dute gizartean (Fernández, Generelo eta De la Rosa, 2012).

Hala ere, azken urteetan, errealitate honek onarpen eta garrantzi berezia irabazi du mendebaldeko gizartean (Becerra, 2003) eta aurrerabide handia eman da onarpen mailan

eta lege berdintasunean (Stee-eilas, 2015). Alabaina, aipatu bezala, transexualitatea ez da egunean sortu den hitza (Becerra, 2003), eta ezaguna den kontzeptua izan arren, antropologia alorrek ezer gutxi eskaini du, bada, ikerketa eta azterlan eskasak egin izan dira historian zehar errealitate honen inguruan (Gavilán, 2016).

1.2.2. Transexualitatea medikuntzaren ikuspegitik

Medikuntza esparruan, 1980 geroztik sailkapenerako erabiltzen diren bi eskuliburu nagusietan, transexualitatea nahasmen mental gisa hartzen da (Atienza Macías eta Armaza Armaza, 2014); batetik, *American Psychiatric Association*-ek sortutako DSMan (*Diagnostic and Statical Manual of Mental Disorders*), eta bestetik munduko osasun erakundeak (OMS) eraturako CIEan (*Clasificación Internacional de Enfermedades*) (Mas Grau, 2015).

Hala ere, zenbait aldakuntza somatu daitezke historian zehar. 1980.urtean, APAk (Amerikako Psikiatria Elkarte) generoaren disforia terminoa ordezkatu zuen “*Trastorno de Identidad de Género*” terminoagatik dagoeneko zaharkituta dagoen DSM IIIan (Mas Grau, 2017). Bestetik, DSM-IVan, “*Trastorno de Identidad Sexual*” moduan ezagutzen da (Martínez-Guzmán eta Íñiguez-Rueda, 2010). Bukatzeko, DSM Vean txertatzeko, beste aldaketa terminologiko bat egin, eta generoaren disforia moduan izendatzea erabakitzen da (Mas Grau, 2017).

Urteak aurrera joan ahala, 1989.urtean zehazki, *Clasificación Internacional de Enfermedades* (CIE-10) txostena indarrean sartu zen (Martín-Vegue, Vázquez-Barquero eta Herrera, 2002). Txosten honek nortasun sexualaren nahasmenaren hiru sailkapen egiten ditu: haurtzaroan ematen den identitate sexualaren nahasmena, rol bikoitzeko trabestismoa eta transexualismoa (Marote González, Pera Bajo, Perea Pérez eta Sánchez Sánchez, 2018). Hortaz, oraindik ere bertan, transexualismoa, diagnostiko moduan agertzen zen nahiz eta nahasmen gisa agertzea askotan kritikatu izan (Earle, 2014:179. or, Mas Grau, 2017an aipatua).

1.2.3. Transexualitatea zuzenbidearen ikuspegitik

Faktore psikologikoak garrantzi handia du, eta identitate sexualean galerak dituzten pertsonak daudela aintzat hartuta, zuzenbideak ez luke egoera horien aurrean begirada baztertu beharko (López-Galiacho, 1998).

Aspalditik, jaioberriari esleitzen zaion sexua genitalek adierazten dutenarekin estu lotuta dago (Becerra, 2003). Erregistro Zibilean txertatzea ohiko prozesua izaten eta

2007ko martxoaren 15eko legeak hartzen du izen-aldatzearen kargua. Lege honek, erregistro zibilean sexu aldaketak egiteko eskakizunak arautzea du xede; gainera, izen-ematea genero identitatearekin bat egiten ez duenean, izen propioa aldatzea ahalbidetzen du, eta ez du kirurgia beharrezkoa egiten, baina zenbait irizpide betetzea ezinbestekoa da: hasteko, generoaren disforia erakusten duen diagnostikoa azaltzea; ostean, bi urteko tratamendu medikua aurkeztea; gainera, 18 urtetik gorako gizabanakoa izatea eta amaitzeko, Espainiako herritartasuna izatea. Hala ere, legean aldaketak eman ziren arte, NAN ziurtagirian edo eta Erregistro Zibilean sexuaren aldaketa ematea ezinezkoa zen (Marote González et al., 2018).

Beranduago, Euskadiko Parlamentuak 2012ko ekainaren 28ko legea onartu zuen. Lege honek transexualen eskubideak errespetatzea dakar; gainera, Euskadiko herritarrei jakinarazten zaie genero arrazoiengatik suertatutako bazterketa egoerak arautuko direla. Gizarteak duen erronka handienetako bat askatasun indibidualak eta kolektiboak bere egitea da eta hezkuntza gizartearen parte den heinean, erronkak horiek onartu behar ditu (Huerta, 2016) gizabanakoaren garapena bete-betean ahalbidetzeko (Pulgarín, 2009).

1.2.4. Transexualitatea hezkuntza ikuspegitik

Basek (2015) bere lanean aipatzen duen moduan, egungo hezkuntzak eta orain dela hainbat hamarkadetako hezkuntzak dituzten beharrak ezberdinak dira guztiz, izan ere, egungoak ase behar dituenak askoz anitzagoak dira. Honek metodo tradizionaletik alde egitea eskatzen du, aniztasunean oinarritutako ideien berrantolaketa eginez. Adibidez, eskoletan berdintasuna eta inklusioa sustatzea garrantzitsua den erronketako bat da, eskola inklusiboaren xede nagusia ikasle guztien garapena ahalbidetzea izanik, guztiei aukera berdina luzatuz eta generoen estereotipoekin apurtuz.

Alabaina, hezkuntzaren parte diren pertsona guztiek ez dute hezkuntza-guneaz berdinki gozaten, hala gertatzen da lesbiana, gay, bisexual eta transexualen kasuan (LGBT), eta horren ondorioz, nortasuna askatasunez finkatzeko aukera eskasak dituzte (Pulgarín, 2009), are gehiago, transexualek, eskola, bazterketa espazio moduan hartu ohi dute (Fernández et al., 2012).

Gauzak horrela, giza eskubideekin ematen diren urraketekin bukatzeko hezkuntza funtsezko erraminta da (Huerta, 2016). Hezkuntza sistema sustatzaile aktiboa izan behar da, eta ikasleen identitatea eta sexualitatea inguru horretan mugitzen den heinean, giroa zaindu behar da arraro senti ez daitezen. Horretarako guztirako, aniztasunak aberasten

gaituenaren pentsamoldetik abiatu behar da, aniztasunaren ezaugarri anitzak landuz eta garatuz (Stee-eilas, 2015).

Hala ere, hezitzaile askorentzat hezkuntza sexuala sartzeari txarto ikusita dago irakatsi behar dituzten edukiekin nahikoa zaielako. Horregatik, garrantzitsua da ezer zehaztu aurretik, curriculumean txertatzeak lituzkeen abantailak justifikatzea (López Sánchez, 2009). Gai hau hezkuntza curriculumean txertatzeak, orain arte *tabua* izan diren kontzeptuei buruz berba egitea dakar, horrela ikasleek errespetuzko jarrerak garatzen dituztela, are gehiago, errealitate horiek guztiak ezkutatzea, hezkuntza anakronikoa bultatzea modukoa litzateke (Huerta, 2016). Gainera, nerabezaroa aprobetxatu behar da berdintasunean oinarritutako genero-rolak garatzeko curriculum ezkutuaren bitartez, izan ere nagusiagoak diren heinean, hauek dituzten alderdi diskriminatzaileak ikuspegi kritikoago batekin aztertzeke trebeagoak dira (López Sánchez, 2009).

Jaiotzen garenean bi talde handitan sailkatzen gaituzte: neskek eta mutilak (Leiva, 2005), eta dagoeneko aipatua izan den moduan, jaio aurretik ere, gizarteak, garapen soziala baldintzatuko duen genero-rola esleitzen dio gizabanako bakoitzari. Hala ere, garapenaren psikologiarekin loturiko hainbat teoria sortuak izan dira haurrak konprenituak izan daitezela. Horietako bat Erik Erikson-ek garatu zuen eta zortzi estadios osatuta dago, fase horietako bakoitza gizabanakoek gainditu beharreko estatusunekin lotutakoak dagoela (De Toro, 2015).

Haurrak bi urte inguru betetzen dituenean, desberdin jarduten diren bi genero diferente daudela konturatzen da, eta genero horien estereotipoetan fijas kategoriatan horietako baten parte dela ulertzen du (Brill eta Pepper, 2008, De Toro, 2015ean aipatua). Hala ere, umeak ez du bere identitatea finkatzen bost urteak betetzen dituen arte (López-Sánchez, 2005). Hazten garenean, gainontzeko gizakiekiko diferenteak garenaren kontzientzia hartzen dugunean, *self sexuala* bereganatzen dugu, emakume edo gizonezkoa garenaren norberaren kategorizazioa (Leiva, 2005).

Hiru urteak lortze aldera, haurrak genero identitatearen kontzientzia lortuz doazen heinean, identifikatzen diren generoaren ereduak imitatzea bilatzen dute. Gehienetan, generoaren kontzientzia-uste hori denboran zehar egonkor mantentzen da, eta zenbat eta nerabera gehiago hurbildu, oraindik egonkorragoak bilakatzen dira uesteak. Berdina gertatzen da transexualen kasuan, zeintzuek identifikatzen diren generoarekin gizartearen parte izateko modu aktiboan borrokatzen duten (De Toro, 2015).

Hiru eta bost urte bitartean, genero desberdintasunak sendotu egiten dira sexu-biologiko bakoitzerako esleitutako rolen sozializazioa dela medio. Izan ere, haurrak biologikoki diferenteak direla konturatzen dira eta generoarekin lotutako jarrerak bereganatzen dituzte (Brill eta Pepper, 2008, De Toro, 2015ean aipatua) beste gizabanakoekiko harremanak arrazoi (De Toro, 2015). Ondoren, Erikson-en teoria oinarri hartuta, 6-9 urte bitartean, seinek gizarte-eskakizun berriei aurre egin behar diete (De Toro, 2015).

Eremuan eman daitekeen arazo nagusia umezaroan suertatu ahal den identitate arazoa da, hau da, sexu biologikoa eta sentitzen dena bat egiten ez dutenean. Uste sendo honek zenbait hilabeteetan zehar irauten badu, identitate arazo baten aurrean gaudela esan genezake (López-Sánchez, 2005).

Orain gutxira arte, haurren transexualitatea ezin ikusizko kontzeptua zen, gehiago dena, pentsaezina. Horrenbestez, ez zen posiblea hauen beharrei aurre egitea, inork ez baitzuen hurrek adierazten zutena ulertzen. Horiek horrela, adierazitakoa ulertzen ez zenez, zuzendu egiten zitzairen, isilarazi eta baita zigortu ere, eta horrek sufrimendua ekartzen zuen (Mayor, 2018).

Gaia garrantzitsua den heinean, ezinbestekoa da genero-ikuspegia hezkuntza-legedi guztietan txertatzea. Eskola-curriculumean libreki tratatu beharko litzateke, eta horrez gain, etorkizuneko irakasle izango diren gizabanakoen genero zein sexu-aniztasunean formakuntza osatzea inportantea da (Puche, et al., 2013). Hala ere, etorkizuneko irakasleen formakuntzarako unibertsitate gehienek ez dute prestakuntza mota hau eskaintzen; are gehiago, derrigorrezko irakasgaien parte ez denez, irakaslearen irizpidearen mende geratzen da gaia landu ala ez (López-Sánchez, 2009).

Beraz, laburbilduz, hezkuntza sexuala hezkuntza integrala gauzatzeko aurrera pausua da (Morales eta Guijarro, 2003, Caballo 2016an aipatua). Gainera, beharrezkoa da emakume eta gizonezkoen artean berdintasuna lortzeko, errespetua lortzeko eta baita ikasleei zoriontsu egiten dieten rolek eta sexuarekin identifikatzen laguntzeko ere (Ferren, 1988, Caballo, 2016an aipatua).

2. MARKO PRAKTIKOA

2.1. Metodologia

Marko praktikoa garatu ahal izateko, lehenik eta behin, gaiaren inguruan adituak direnen iritziak irakurtzea eta aztertzea garrantzitsua da, bada, ezinbestekoa da oinarri

teoriko sendoa izatea ostean marko praktikoa garatu ahal izateko.

Arestian aipatu izan den moduan, transexualitateak dakarren errealitatea normalizatzea ezinbestekoa da Lehen Hezkuntzako ikasleen artean. Genero aniztasuna gero eta nabariagoa da eta horregatik hezkuntza sistematik gaiaren lanketa jorratzeak garrantzi handia du. Horregatik guztiagatik, jarraian datorren proposamen didaktikoa diseinatzea erabaki da.

Proposatutako jardueren zailtasun maila eta hausnarketa tartean garatzeko galderak aintzat hartuta, Lehen Hezkuntza seigarren mailako ikasleentzat bideratuta dago, eta ikasleak bai bakarka eta baita taldeka lan egiteko aukera izango dute, nahiz eta jarduera gehienak taldeka burutzekoak izango diren.

2.2. Esku-hartzea

ESKU-HARTZEA			
Esku-hartzea:	TRANSEXUALITATEAREN ERREALITATEA IKASGELARA HURBILTZEN		
Maila:	LH 6	Saio kopurua:	13
Proposamen didaktikoaren justifikazioa			
<p>Transexualitatea eta gorputz ez normatiboak, urteetan zehar sufrimendu eta lotsa hitzen parean jarri izan dira, eta aurrera pausu handiak eman diren arren, oraindik ere baztertuta eta diskriminatuta dauden talde hauen inklusioa garatzear dago eta honi ekitea garrantzitsua da; arazoa gizartean ezarrita dauden arauetatik aldentzean dator, izan ere, finkatuta dagoen eredu bitarrarekin identifikatzen dena soilik dago guztiz gizarteratuta.</p> <p>Zoritxarrez, transexualitatea diskriminatutako talde honen barruan sartzen da eta honek, eskolan bullyinga areagotzea ahalbidetzen du. Horrenbestez, eta hezkuntza irakasteko, baloreak transmititzeko eta berdintasunerako eskubideak bultzatzeko tresna indartsua den heinean, garrantzitsua da honako proposamen didaktiko hau eskuragarri izatea.</p>			
Gaitasunak			
<p>Jarraian, esku hartzearen bitartez landuko diren gaitasunak zeintzuk diren adieraziko dira eta aldi berean, azken hauek nola garatzen diren azalduko da:</p>			

Konpetentzia sozial eta zibikoa

Esku-hartze honen bitartez gehien landu nahi den konpetentzia da hau. Ikasleak kontzeptuak eta idea berriak landuz doazen heinean, errespetu osoz eta enpatiarekin jokatzeko ikastea da helburua, gizarte demokratiko, solidario, inklusibo eta pluralagoa sortuz. Balio hauek transmitituz konpetentzia hau landuko da.

Elkarbizitzarako konpetentzia

Momentu oro gaitasun hau presente egotea da esku-hartze honen helburuetako bat. Azken finean, errealitatea ezagutzeaz gain, errespetatzea da funtsezkoena. Horrela, jardueretan zehar, taldeka nahiz banaka ariketak garatzen doazen heinean, gaiarekiko eta klase kideekiko errespetua garatzen joango dira, horrela, elkarbizitza eta giro atsegingarriagoa sortzen dutela.

Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia

Esku hartzea hiru jarduera motatan banatuta dago; batetik, aurre ezagutzak; bestetik, kontzeptu berriak ulertzea eta barneratzea; amaitzeko, transexualitatearen errealitatea ikasgelara hurbiltzea. Esku-hartzean zehar, ideiak aldatzeko eta hausnartzeko aukera izango dute. Hortaz, honen bitartez konpetentzia hau garatuko litzateke.

Norbera izaten ikasteko konpetentzia

Esku hartzean zehar ikasleak norbera izateko aukera izango du. Gaia errespetuarekin lantzea eta jorratzea da helburu nagusietako bat, hala, ikasleei konfiantza emango zaie momentu guztietan benetan pentsatzen, sentitzen eta uste dutena azalarazteko.

Hitzez eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia

Uneoro ahozko adierazpena izango da nagusi. Beraz, ahozko azalpenak entzunez eta entzundakoa taldeka zein banaka praktikan jartzen konpetentzia hau garatuko dute. Hala ere, hitzez komunikatu gaitezkeen moduan, hitzik gabe ere sarritan uste dena baino gehiago komunikatzen dira ikasleak eta esku hartzean zehar hori behatzeko aukera ere egongo da.

Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia

Saioak arrakastarekin aurrera eroanak izan daitezkeen, ikasleen une oroko parte-hartze aktiboa garrantzitsua izango da. Gainera, autonomia eta espiritu ekintzailea garatzeko tarteak ere emango zaie, bai bakarkako lanetan eta baita talde lanetan ere.

Hizkuntza eta literaturarako konpetentzia

Jarduerak burutzerako orduan, kontzeptu berriak barneratuko dituztenez, hiztegia aberastuko dute. Gainera, zenbait jardueratan, ahozko trebetasuna eta beste zenbaitetan idatzizko trebetasun garatzeko aukera izango dute.

Helburuak

Proposamen didaktiko honen helburu orokorra transexualitatearen errealitatea ikasgelara hurbiltzea eta ikasleek gaiarekiko enpatia eta errespetua garatzea da. Hala ere, beste helburu zehatz batzuk garatzea garrantzitsua da helburu orokor hori lortua izan dadin. Helburu zehatzak honako hauek dira:

- Ikasleek sexuarekiko eta generoarekiko dituzten aurreiritziak ezagutzea.
- Sexu eta genero kontzeptuen definizioak ulertzea, bata eta bestearen artean dauden diferentziaz jabetzea, eta adibideak jartzeko gai izatea.
- Gizartean ezarrita dauden rolez eta estereotipoez jabetzea eta estereotipoei aurre egiteko jokabideak izatea.
- Aniztasuna modu positiboan baloratzea.
- Transexualitatearen errealitatea ikasgelara hurbiltzea.
- Transexualitatearekiko enpatia eta errespetua erakustea.

Edukiak

- | | |
|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> • Generoa • Generoaren rolak • Estereotipoak • Errespetua • Sexua • Transexualitatea | <ul style="list-style-type: none"> • Eredu bitarra • Enpatia • Transfobia • Gizarteratzea • Emozioak |
|---|---|

Irizpide metodologikoak

Esku hartzean zehar burutuko diren lehenengo jarduerak genero eta sexu kontzeptuekin lotutakoak izango dira, helburuetako bat hori baita; askotan pentsatu ohi da sexu eta genero hitzek esanahi berdina dutela; ariketetan zehar, horrela ez dela ikasteko aukera izango dute. Hortaz, helburuetako bat, bi hitzen definizioa ulertzea eta bien arteko bereizketa egitea litzateke.

Bestalde, horiek horrela badira ere, esku hartzearen xede nagusia transexualitatearen errealitatea ikasgelara hurbiltzea da. Esku hartzean zehar garrantzi berezia eman nahi zaio normatibatik at dauden taldeei, horrela gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia garatzen dela. Izan ere, nork bere burua eta taldea eta mundua konprenitzea beharrezkotzat jotzen da, inportantea baita bizitzaren egoera desberdinetan autonomiaz eta arduraz jokatzeko, gizarte guztiz inklusiboa eta plurala sortzeko.

Tratatzen ari den gaia aintzat hartuta, 6.mailara bideratuta dagoela aipatzea interesgarria da. Esatekoa da saio gehienen amaieran, hausnarketa tarte dagoela. Tarte hori aurrera eraman ahal izateko, irakaslearen papera garrantzitsua da; hau da, gaia delikatua denez gero, hausnarketak sakonak izatea komeni da, ikasleek egoeraren eta errealitatearen kontzientzia har dezaten. Haatik, horrek ez du esan nahi ikasleek ezingo dutela beraien autonomia eta beraien artean koordinatzeko gaitasuna garatu, hau eskatuko baitie jarduerak berak. Momentu horretan, irakaslea laguntzaile izatera pasatuko da.

Jardueren luzapenei dagokionean, iraupen desberdineko jarduerak direla aipatzekoa da. Saio gehienak, jarduera bat baino gehiagotan banatuta daude. Hala ere, ikasleak Lehen Hezkuntzako mailarik altuenean daudenez, jardueren iraupenak ez dira oso laburrak izan behar, gai izango baitira hauek egokitasunez burutzeko.

Esku hartzearen nondik norakoak kontuan hartuz, helburu nagusienak transexualitatearen errealitatea ikasgelara hurbiltzea eta gaiarekiko kontzientzia eta errespetua garatzea dira. Alabaina, gaia zuzenki ez sartzeko, prozesu bat jarraitzea erabaki da; hots, genero eta sexu kontzeptuen azalpen eta barnerapenetik transexualitatearen errealitatera heldu arte.

Ebaluazio adierazleak

- Ea ikasleek sexuarekiko eta generoarekiko dituzten aurreiritziak ezagutzen dituzten.
- Ea sexu eta genero kontzeptuen definizioak ulertzen dituzten, bata eta bestearen artean dauden diferentziaz jabetzen diren eta adibideak jartzeko gai diren.
- Ea gizartean ezarrita dauden rolez eta estereotipoez jabetzen diren eta estereotipoei aurre egiteko jokabideak dituzten.

- Ea aniztasuna modu positiboan baloratzen den.
- Ea transexualitatearen errealitatea ikasgelara hurbiltzea lortzen den.
- Ea transexualitatearekiko enpatia eta errespetua erakusten duten.

Ebaluazio tresnak

Proposamen honetan transexualitatea lantzeko hainbat saio sortu dira. Saio hauetarako guztietarako, helburu bat ala gehiago finkatuta egongo dira, eta hauek lortzeko, ikasleek jarduerak burutzea beharrezkoa da. Hala ere, jarduera hauek ebaluatuak izango dira, eta hau posible izateko, ebaluaziorako tresnak ezinbestekoak dira. Esan beharra dago saio bakoitzaren bukaeran, saioa ebaluatzeko erabiliko diren tresnak aipatuta daudela.

Saio gehienetan erabiliko den tresnetako bat, batetik, behaketa izango da. Behaketa irakaslearen menpe egongo da eta zenbait modutan ebaluatu daiteke, adibidez: lantzen ari diren gaiarekiko errespetua erakusten duten barrerik ez eginez, ikasleek esaten dutena errespetuz esaten duten behatuz, ikaskideek berba egiten dutenean errespetuz entzuten duten behatuz, komentario zakarririk egiten ez duten behatuz edo gai diferenteak lantzen daudela barrerik egiten ez dutela behatuz eta abar.

Alabaina, behaketa ez da erabiliko den ebaluazio tresna bakarra. Saio bakoitzaren amaieran hausnarketa txikia egitea garrantzitsua da gairekiko kontzientzia hartzeko. Horretarako, eranskinak atalean (5.3) ikasleek bete beharreko hainbat fitxa sortu dira. Ematen dituzten erantzun guztiak ebaluazio gisa balio izango dute, izan ere, finkatutako helburuak lortzeko izan dira sortuak.

Beraz, oro har, behaketa eta ikasleek betetzen dituzten fitxak izango dira ebaluaziorako tresna nagusi.

Jardueren sekuentziak

Arestian, esku-hartzearen inguruko zenbait datu eman dira, baina orain, praktikara nola eramango litzatekeen zehaztuko da. Horretarako, saioen nondik norakoak azalduko dira.

Hasteko, lehenengo saioaren lehenengo fasean, ikasleen generoarekiko eta generoaren rolekiko aurre iritziak ezagutuko dira. Horretarako, irakasleak hitzak esango ditu eta ikasleek, banaka, hitz horiek marrazkien bitartez irudikatuko dituzte. Hau bukatzen

dutenean, irakasleak prest izango dituen galderekin (ikus 1go fitxa), hausnarketarako tartea irekiko da. Horretarako, ikasleak 7ko talde mistoetan banatuko dira.

Bigarren saioaren lehenengo faseari dagokionean, aurre iritziak nondik nora doazen jakiteaz gain, egunerokotasunean topa ditzaketen egoerak aurkeztuko zaizkie (ikus 2. fitxa). Horiek horrela, talde lanarekin, irtenbideak topatu beharko dituzte, eta bukatzeko hausnarketa bat egingo da (ikus 3. fitxa). Bigarren fasean, aldiz, lehenik eta behin, banaka, ikasle bakoitzak letra sopa bat bete beharko du, non 6 lanbide desberdin agertzen diren. Ostean, 5/6ko talde mistoetan, 4. fitxan agertzen diren galderak erantzun beharko dituzte. Galdera hauek, ostean, hausnarketarako balio izango dute.

Hirugarren saioan, ikasleek 5/6 pertsonaz osotutako taldetan lan egingo dute berriro ere, eta oraingo honetan sexu eta genero hitzekin kontaktuan jarriko dira. Horretaz gain, irudimena lantzeko aukera luzatuko zaie. Horretarako, paper zuri zati handi batean, emakume eta gizon idealaren irudia marraztuko du talde bakoitzak. Hemen ere, barneratuta dituzten estereotipoak ikusteko aukera egongo da. Ikasleek irakasleak emango dituen hitzak uste duten irudiaren gainean kokatuko dute. Gainera, beste hitz asko eurek asmatu eta berriro ere irudiaren gainean itsatsiko dituzte. Hitzak hirukoiztuta egongo dira eta hirugarren hori, arbelean egongo diren bi zutabeetako batean kokatu beharko dute. Zutabe batean *sexu* hitza eta bestean *genero* hitza idatzita egongo dira.

Laugarren saioa hiru atal desberdinetan banatuta dago. Lehenengoan, irakasleak ikasle bakoitzari orrialde bat emango dio. Orrialde horretan, esaldiak idatzita egongo dira (ikus 5. fitxa) eta ikasleek esaldi horiek *sexu* eta *genero* hitzekin lotu beharko dituzte. Bigarrenean, bi hitzen esanahiak ezagutuko dituzte nik sortutako bideo baten bidez. Azkenik, esaldiak zuzentzeko aukera izango dute, izan ere, *sexu* eta *genero* hitzen esanahiak ezagutu dituzte.

Bosgarren saioari dagokionean, lehenengo jarduera burutzeko ikasleak 5/6ko taldetan banatuko dira. Saio honetan genero rola izango dira nagusi eta horretarako jaio berriak diren Ane eta Markelen irudiak aurkeztuko zaizkie eta 6. fitxan agertzen diren galderari erantzuna emango diete. Bigarren fasean, ingurune hurbilean suertatzen diren ekintzak aurkeztuko zaizkie (ikus 7. fitxa). Honen bitartez, rola sexuaren arabera atxikituta

daudela jabetzea da helburua. Bukatzeko, hausnarketarako tartea irekiko da irakasleak 6. fitxan bertan dauden galderak egiten dituela.

Seigarren saioan, transexualitatearen errealitatea hurbilduko zaie ikasgelara. Lehenik eta behin, taldeka, “*Zer da transexualitatea?*” galdera egin beharko diote ikastetxeko partaide diren 5 pertsonari. Ostean, saioaren lehenengo 10 minutuetan erantzunak komentatu eta kontrastatu egingo dira. Bigarren fasean, taldeak mantenduko dira eta panpinak janztea izango dute helburu. Honetarako, beste 10 minutu erabiliko dira. Amaitzeko, beste jarduera batean, irakasleak egingo dituen galdera batzuen bitartez, banaka jarrita oraingo honetan, pertsonaia bat sortu beharko dute. Ikasleak zenbait galdera egingo ditu, eta galdera hauei erantzuna emanaz sortu beharko dute pertsonaia. Hau bukatuta, taldeka jarrita, banatuko zaizkien hausnarketarako galderak erantzun beharko dituzte (ikus 8. fitxa). Hau bukatzean, hausnarketa tartea galdera hauek elkarbanatuz egingo da.

Zazpigarren saioan ikasleei 5 minutuko Rol Playing baten bitartez transexualek eskola eremuan bizi dituzten egoerak islatzea eskatuko zaie. Jarraian, bideo baten bidez transexualitatearen errealitatean eman daitekeen kasua erakutsiko zaie. Hau bukatzean, hausnarketarako tartea irekiko da, eta tertulia aurrera eramateko, irakasleak zenbait galdera prestatuta izango ditu hausnarketa gidatzeko (7. saioko esku-hartze taulan azalduta).

Zortzigarren saioan, ikasleek, bideo bat ikusi eta artikulu bat irakurriko dituzte (ikus 9. fitxa). Hau bukatzean, bi kasuetan ematen diren antzekotasunak bilatu behar dituzte, horretarako, 10. fitxan agertzen diren galderei erantzuna eman beharko diete.

Bederatzigarren saioan, lehenengo eta behin, bakarka jarrita, ikasleek gutun bat idatzi beharko diote Hugori. Hau bukatzean, gutunean idatzitakoak komentatzeko aukera izango dute.

Hamargarren saioari dagokionean, komun komunei garrantzia emango zaie. Lehenengo fasean, ikasleei irudi bat aurkeztuko zaie (ikus 11. fitxa). Jarraian datozen galderak erantzuteko, ikasleak 5/6ko taldeetan batuko dira, eta irakasleak prestatuta dituen zenbait galdera erantzun beharko dituzte (10. saioan azalduta galderak).

Hamaikagarren saioa hiru fasetan banatzen da. Lehenengo fasea taldetan egingo da. Irakasleak galdera sinple batzuk egingo ditu eta erantzunak eman beharko dituzte.

Bigarren fasean, transexualek bizi dituzten egoera desberdinak banatuko zaizkie ikasleei (ikus 12. fitxa). Saioari amaiera emateko, hirugarren fase honetan, sentimenduak sartuko dira. Ikasleek egoera bakoitzari 3 sentimendu atxikituko dizkiete. Bukatzean, sentimenduak arbelean idatziko dira eta mahai inguru bat sortuko da 13. fitxan dauden galderekin gidatuta.

Hamabigarren saioan, ikasleek "Ur-handitan" telesaileko bideoa ikusiko dute. Saio osoa bideoa ikusten emango dute ikasleek.

Hamahirugarren saioarekin sekuentzia didaktikoari amaiera emango zaio. Lehenengo 20 minutuak aurreko egunean ikusitako bideoa gogoratzen emango dute eta bigarren tarten borobil handi batean kokatuko dira ikasleak eta irakasleak prestatuta dituen galderak (ikus 14. fitxa) erantzungo dituzte mahai-inguru bat sortuz.

2.3. Saioak

Atal txiki honetan, saioen nondik norakoak ikusi ahal izango dituzue. Alde batean, saioaren zenbakia idatzita dago, eta bestean, saioaren izena. Hala, hauetako bat begiratu nahi izatekotan, 5.1. eranskinera jo beharko duzue.

SAIOAK			
1. saioa	Aurreideiak	8. saioa	Transexualitatea eta kirola
2. saioa	Egoerak aztertzen	9. saioa	Kaixo Hugo!
3. saioa	Zuen pertsona ideala	10. saioa	Komun komunak
4. saioa	Sexua eta generoa	11. saioa	Egunerokotasuneko egoerak
5. saioa	Nork egiten du lan?	12. saioa	"Ur-handitan"
6. saioa	Transexualitatea	13. saioa	Mahai-ingurua
7. saioa	Rol Playing		

3. ONDORIOAK

Jarraian, hurrengo lerro hauetan, Gradu Amaierako Lana egitetik ateratako ondorioak ikusgai jarriko ditut. Atal honetan zehar, batetik, izan ditudan zailtasunak aipatuko ditut, bada, dokumentua garatzeko zenbait oztopoei aurre egin behar izan diet. Bestetik, gaia aukeratzearen zergatiari emango diot garrantzia. Hasiera batetik, argi izan dut lana transexualitatea ikasgelara hurbiltzeko proposamen didaktiko batekin osatu nahi nuela, eta halaxe izan da. Horregatik, alde positiboak ere ateratzen ditudala esan beharra daukat eta hauek irakurtzeko aukera ere izango dituzue. Bukatzeko, azken lerroak balorazio

pertsonala idazteko erabiliko ditut.

Hasteko, gaia bere osotasunean konplexua den heinean, marko teorikoa eta praktikoa sortzerako orduan, zailtasunak egon dira, nabarmenena informazio falta izan dela. Genero identitatea, transexualitatea eta sexuarekin erlazionatuta dauden makina bat artikulu eta liburu irakurrita ere, gainontzeko beste gai askorekin alderatuta informazioa eskasa dela esaten ausartuko nintzateke. Hala ere, artikulu eta testu interesgarriak topatu ditut oso, eta hauek guztiak lana egokitasunez garatzen lagundu didate.

Gainditu beharreko erronkekin jarraituz, alde praktikoari egingo diot erreferentzia. Gaia hautatu nuenean, proposamen didaktikoaren estrukturaketarekin zailtasunak izango nituela pentsatu izan nuen, eta hala izan da. Helburu nagusia transexualitatearen errealitatea ikasgeletara hurbiltzea bazen ere, gaiarekiko errespetua eta enpatia garatzeari tarte garrantzitsua eman nahi nion. Askotan pertsona hauek izendatzeko “pertsona trans” kontzeptua erabiltzen dugu eta kalifikatzaile hau esleitzen zaie hauek izendatzeko modu bakarra izango balitz moduan. Alabaina, momentu horietan pertsona hauek izaera, hobbie-ak, anbizioak eta abar dituzten gizabanakoak direla ahaztu egiten dugu.

Lanean zehar ikusi den moduan, eredu bitarrean oinarritzen den gizartean bizi gara, non emakume/gizon izateko aukera existitzen den. Hori dela eta, gainontzeko kolektiboak, hots, gorputz ez-normatiboak, eta kasu hauetan jaiotzean esleitutako sexuarekin identifikatzen ez diren pertsonak, gizartearen onarpenetik at gelditzen dira.

Egia da, pertsona zisgeneroa naizen heinean, nire sexua eta genero identitatea bat datoz, transexualitatearen inguruko iritziren bat emateko informatu egin behar naizela. Dena dela, lana egiten nenbilela zalantza andana sortu zitzaizkidan. Adibidez, zerk egiten gaitu gizon/emakume? Arrosa gustuko izateak emakume bihurtzen zaitu? Edo eta, autoak eta kamioiak gustuko izateak gizon? Genero aniztasuna duten pertsonak pentsa edo senti dezaketenaren ezjakintasunetik, baina emakume baten ikuspuntutik begiratuta, “gustu” hauek gizarteak betikotzen eta ezartzen dituela esango nuke.

Beraz, hau jakinik, proposamen didaktikoa generotik, genero roletatik, estereotipoetatik eta sexu kontzeptuetatik hasita transexualitatera bideratuta egitea erabaki nuen bi arrazoi direla medio; lehenengo arrazoa, aurreko paragrafoan idatzita dagoenagatik. Bigarren arrazoa ikastetxe eta eskoletan somatu dudana gabeziarekin estu lotuta dago. Hilabete hauetan guztietan zehar irakurri ditudan liburu eta artikulu desberdinek esaten dutenaren arabera, transexualitatea adinez txikiak diren gazteetan

somatzen da gehien. Are gehiago, gero eta gehiago dira txikitatik seinaleak ematen hasten diren gazteak. Horregatik guztiagatik, Lehen Hezkuntzan gaiarekiko normalizazioa eta errespetua garatzea garrantzitsutzat jotzen dut. Gainera, edozein herrialdeko edozein eskolan eman daitekeen errealitatea da. Beste modu batean esanda, irakasleen formakuntza ezinbestekoa litzatekela uste dut, izan ere, errealitate honen aurrean jarrera egokia izatea beharrezkoa da haur hauentzat.

Bestalde, etorkizuneko irakasle izango naizen heinean eta unibertsitatean 4 urte hauetan zehar jasotako formakuntzari erreferentzia eginez, gaiaren lanketarekiko gabezia somatu dut. Arestian aipatu bezala, gizarteak normatibatik at dauden gorputzak diskriminatu egiten ditu, beraz, transexualen taldea sortzen duten pertsonen diskriminazioa sufritzen dutela esan genezake. Bazterketa hau, askotan, eskola eremuan ere transmititu egiten da, eta horregatik, hezkuntza gizartea aldatzeko arma indartsua den heinean, garrantzitsua ikusten dut adin txikieneko gazteekin gaia jorratzen hastea. Hala ere, transfobia ez da edozein modutan gaudituko, eta pertsona trans* hauekiko errespetua garatzearekin ez litzateke nahikoa izango. Horretarako, gizartea aurkako bi polotan antolatzeke joerari uko egitea eta aniztasuna balioestea garrantzitsua da oso.

Horrez gain, ikasle transexualak eta gizartean onartuak ez diren taldeak gizarteratzeko, ezinbestekoa da babes eremuak eta espazioak sortzea. Horretarako, adibidez, aurrerapauso handia izan liteke eskola eta ikastetxeetan komun komunak jartzea. Hori dela eta, idatzitako guztia kontuan hartuta, 5.3. eranskinean agertzen den 11. fitxa diseinatzea erabaki nuen.

Bukatzeko, balorazio pertsonalari buruz idatzi nahiko nuke, izan ere, lan honek pertsona moduan hazten lagundu dit. Proposamen didaktiko bat sortzea ez da inondik inora gauza erraza eta praktikara eramanez den arren, horrela izan zitekeela imajinatzeak ikasleekin gai hauek lantzea (genero aniztasuna, transexualitatea, genero rola eta abar) zein erraza eta aldi berean zaila den ikusarazten laguntzen du.

Azken mezu moduan, helduon jarrerak duen garrantzia azpimarratu nahiko nuke. Ikasleak askeak izatea bada gure helburua, hauen etorkizuna zein izango den asmatzen saiatu aurretik, helduon eta batez ere irakasleen/on betekizuna trantsizioan egon daitezkeen ikasleak entzutea da.

4. ERREFERENTZIAK

- Aingeru Mayor (2018, Martxoak 28). *Haurren transexualitatea ulertzeko ohar batzuk: Guraso.eus-en bloga*. [Blog]. 2019-01-14an berreskuratuta <https://www.guraso.eus/haurren-transexualitatea-ulertzeko-ohar-batzuk/> -tik.
- Atienza Matías, E. eta Armaza Armaza, E.J. (2014). La transexualidad: aspectos jurídicos en el ordenamiento español. *Salud Colectiva*, 10 (3), 365-377.
- Bas Cilonizaurrecochea, I. (2015). *Irakasleen jardun praktika genero estereotipoen aurrean*. 2019-01-05ean berreskuratuta https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/17666/GRAL_Bas_Cilonizaurrecochea_Irati.pdf?sequence=1&isAllowed=y -tik.
- Becerra Fernández, A. (2003). *Transexualidad: la búsqueda de una identidad*. Madril: Díaz de Santos, S. A.
- Bento, B. (2010). La producción del cuerpo dimórfico. *Transexualidad e Historia. Anuario de Hojas de Warmi*, 15, 1-9.
- Butler, J. (2007). *El género en disputa. El feminismo y la subversión de la identidad*. Bartzelona: Paidós.
- Caballo Martín, S. (2016). *Haur sexualitatea eta hezkuntza sexuala haur hezkuntzako bigarren zikloan lantzearen interesa*. 2018-01-09an berreskuratuta https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/20039/GRAL_CaballoMartinSara.pdf?sequence=2&isAllowed=y -tik.
- Consejería de familia y asuntos sociales de la Comunidad de Madrid, (2006). *La transexualidad, diversidad de una realidad*. Madril: Consejería de asuntos sociales de la Comunidad de Madrid.
- De Toro, X. (2015). Niños y niñas transgéneros: ¿nacidos en el cuerpo equivocado o en una sociedad equivocada? *Punto de género*, 5, 109-128.
- Del Estado, B.O. (2007). LEY 3/2007, de 15 de marzo, reguladora de la rectificación registral de la mención relativa al sexo de las personas. *BOE De*, 16. 2019-01-05ean berreskuratuta <https://www.boe.es/buscar/pdf/2007/BOE-A-2007-5585-consolidado.pdf> -tik.
- Euskadi. Parlamentua. (2012). *Ley de no discriminación por motivos de identidad de género y de reconocimiento de los derechos de las personas transsexuales*. (Ley 14/2012). Euskadi: BOE.
- Fernández Rouco, N. (2010). *Necesidades, Calidad de Vida y Salud Psicológica de las personas transsexuales* (Doktorautza tesia). Salamankako Unibertsitatea, Salamanka.
- Fernández, M., Generelo, J. eta De la Rosa, B. (2013). Transformar el sistema educativo para transformar la sociedad. O. Moreno Cabrera y L. Puche Cabezas. (Arg). *Transexualidad, adolescencias y educación: miradas multidisciplinares* (9-10). Bartzelona: EGALES, S.L.
- Gavilán, J. (2016). *Infancia y Transexualidad*. Madril: Catarata.
- Harris, R. (2005). *Sexo... ¿Qué es?: Desarrollo, cambios corporales, sexo y salud sexual*. (2. Edizioa). Bartzelona: Serres.

- Herrera Santi, P. (2000). Rol de género y funcionamiento familiar. *Revista Cubana de Medicina General Integral*, 16 (6), 568-73.
- Huerta, R. (2016). *Transeducar: arte, docencia y derechos LGTB*. Bartzelona: EGALES, S.L.
- Leiva, P.G. (2005). Identidad de género: modelos explicativos. *Escritos de psicología*, 7, 71-81.
- López-Galiacho Perona, J. (1998). *La problemática jurídica de la transexualidad*. Madril: McGraw-Hill.
- López Sánchez, F. (2009). *La educación sexual*. Madril: Biblioteca nueva.
- Marote González, R.M., Pera Bajo, F.J., Perea Pérez, B. eta Sánchez Sánchez, J.A. (2018). Estudio de la transexualidad sobre la Clínica Médico Forense de Madrid. *Revista Española de Medicina Legal*, 44(4), 150-157. 2019-01-15ean berreskuratuta
<https://reader.elsevier.com/reader/sd/pii/S0377473218300336?token=DC64B10389E5D18ED3748A52B078450594D2FE172C55F6C18455BF2C54EE4AE48576A92AB285FBB73841F084F330393B> -tik.
- Martin-Vegue, A.R., Vázquez-Barquero, J.L., eta Castanedo, S.H. (2002). CIE-10 (I): Introducción, historia y estructura general. *Papeles Méd.*, 11(1), 24-35. 2019-01-14an berreskuratuta
<http://sedom.es/wp-content/themes/sedom/pdf/4cbc708c6225apm-11-1-005.pdf> -tik.
- Martínez-Guzmán, A. eta Íñiguez-Rueda, L. (2010). La fabricación del Trastorno de Identidad Sexual: Estrategias discursivas en la patologización de la transexualidad. *Discurso & Sociedad*, 4(1), 30-51. 2018-01-08an berreskuratuta
[http://www.dissoc.org/ediciones/v04n01/DS4\(1\)Martinez&Iniguez.pdf](http://www.dissoc.org/ediciones/v04n01/DS4(1)Martinez&Iniguez.pdf) -tik.
- Mas Grau, J. (2015). Transexualidad y transgenerismo. Una aproximación teórica y etnográfica a dos paradigmas enfrentados. *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares*, 70(2), 485-501. 2018-12-05ean berreskuratuta
<http://rdtp.revistas.csic.es/index.php/rdtp/article/viewFile/492/495> -tik.
- Mas Grau, J. (2017). Del Transexualismo a la disforia de género en la DSM. Cambios terminológicos, misma esencia patologizante. *Revista Internacional de Sociología*, 75(2). 2018-11-08an berreskuratuta
<http://revintsociologia.revistas.csic.es/index.php/revintsociologia/article/view/673/825#NOTE2> -tik.
- Noseda Gutiérrez, J. (2012). Muchas formas de transexualidad: diferencias de ser mujer transexual y de ser mujer transgénero. *Revista de Psicología*, 21(2), 7-30.
- Puche, L., Moreno, E., eta Pichardo, J.L. (2013). Adolescentes transexuales en la escuela. Aproximación cualitativa y propuestas de intervención desde la perspectiva antropológica. O. Moreno Cabrera eta L. Puche Cabezas. (Arg). *Transexualidad, adolescencias y educación: miradas multidisciplinares* (189-265). Bartzelona: EGALES, S.L.
- Pulgarín, J.M.P. (2009). Entre la discriminación y el reconocimiento: las minorías sexuales en materia de educación. *Revista Vía Iurris*, 7, 29-41.
- Rica, I., Grau, G., Rodríguez, A., eta Vela, A. (2015). La atención a los menores transexuales. *Revista Española de Endocrinología Pediátrica*, 6(2), 38-44. 2018-

- 10-10ean berreskuratuta
<http://www.endocrinologiapediatrica.org/modules.php?name=home> -tik.
- Spade, D. (2015). Una vida normal. *La violencia administrativa, la política trans críticas y los límites del derecho*. Bartzelona: Bellaterra.
- Stee-eilas. (2015). *Genero eta aniztasun sexualerako gidaliburua*. Gasteiz: Stee-eilas. 2018-11-13an berreskuratuta <https://steilas.eus/wp-content/uploads/2015/05/Genero-eta-aniztasun-sexualerako-GIDA.-STEILAS.2015.pdf> -tik
- Stryker, S. (2017). *Historia de lo Trans: Las raíces de la revolución de hoy*. (1). Madril: Continta me tienes.
- Subirats, M. (1994). Conquistar la igualdad: La coeducación hoy. *Revista Iberoamericana de Educación*, 1(6). 49-78.

5. ERANSKINAK

5.1. Esku-hartzean egingo diren saioak

1. Saioa. Aurreideiak	
Lekua:	Ikasgela barruan
Materiala:	
<ul style="list-style-type: none"> • Kartulina zati txikiak eta idazteko/margotzeko materiala 	
Denbora:	1go fasea: 20 minutu 2. fasea: 25 minutu
Helburuak:	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleek sexuarekiko eta generoarekiko dituzten aurreiritziak ezagutzea • Gizartean ezarrita dauden rolez eta estereotipoez jabetzea eta estereotipoei aurre egiteko jokabideak izatea
Taldekatzea:	1go fasea: bakarka 2. fasea: 7ko talde mixtoak
Jardueraren azalpena:	
<p>Saioaren lehenengo fasean, ikasleek bakarka jorratuko dute jarduera. Hasteko, irakasleak 6 kartulina zati txiki bantuko dizkio ikasle bakoitzari.</p> <p>Jarraian, ikasle bakoitzak bere kartulina zatia duenean, irakasleak hitzak esango ditu. Hitzak honako hauek izango dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Futbolaria • Irakaslea • Kirurgialaria • Suhiltzailea • Ingeniaria • Matematikaria <p>Hitz hauek guztiak genero eta hauek dituzten rolekin harremana dutenak dira; horrela, ikasleek genero rolekiko dituzten aurre ideiak ezagutzeko aukera suertatuko da. Ikasleen zeregina, ordea, hurrengo hau da: irakasleak esan duen hitza kartulina zatian margotzea, eta irudiari izen bat jartzea. Marrazki bakoitza sortzeko hiru minutu aldera</p>	

utziko zaizkie. Izan ere, hurrengo jarduera, egin dituzten marrazkiak behatzeko eta horren arabera hausnarketa egiteko erabiliko da.

Saioaren bigarren fase honetan, behin aurreko ariketa egiteko denbora bukatu dela, ikasle bakoitzak, egin dituen irudi guztiei errepasso bat emango dio. Ostean, hausnartzeko momentua helduko da, eta horretarako, 7 pertsonaz osotutako taldetan banatuko dira. Taldeak mistoak izango dira eta zoriz aukeratuko ditu irakasleak.

Taldetan banatuta daudenean, irakasleak orrialde zati bana banatuko dio talde bakoitzari. Hauek, zenbait galdera erantzun beharko dituzte (ikus 1go fitxa). Modu honetan, ikasleek, marraztu dutenaren inguruan hausnartuko dute. Erantzuten bukatzen dutenean, taldez talde erantzunak konparatzen joango gara.

Ebaluazioa:	<ul style="list-style-type: none">• Ikasleek egiten dituzten marrazkiak• Lehenengo fitxa
--------------------	---

2. Saioa. Egoerak aztertzen	
Lekua:	Ikasgela barruan
Materiala:	
<ul style="list-style-type: none"> Beharrezkoak diren orrialdeak, idazteko materiala eta pilota 	
Denbora:	1go fasea: 25 minutu 2. fasea: 20 minutu
Helburuak:	<ul style="list-style-type: none"> Ikasleek sexuarekiko eta generoarekiko dituzten aurreiritziak ezagutzea Aniztasuna modu positiboan baloratzea
Taldekatzea:	1go fasea: 5/6ko talde mixtoak 2. fasea: Banaka eta 5/6ko talde mixtoak
Jardueraren azalpena:	
<p>Saio honen lehenengo faseak 30 minutu iraungo ditu eta ikasleak 5 taldetan banatuko dira. Taldeak ez dira irizpide zehatzak jarraituta egingo, irizpide bakarra neskak eta mutilak nahastatuta egotea da eta 5/6 pertsonaz osatuta egongo dira.</p> <p>Jarraian, irakasleak zenbait egoera aurkeztuko ditu (ikus 2. fitxa). Talde guztiek egoera guztiak aztertu beharko dituzte eta irtenbide bat proposatu beharko dute. Hau bukatzen dutenean, zenbait galdera erantzun beharko dituzte ariketan zehar egin dutenaz hausnartzeko. (Ikus 2. eta 3. fitxak).</p> <p>Saio honen bigarren faseak, aldiz, 15 minutu iraungo ditu. Hasteko, ikasle bakoitzari orrialde bat emango dio irakasleak. Orrialde horretan letra sopa bat agertuko da, eta bertan, 6 hitz topatu beharko dituzte, Hitzak lanbideekin zerikusiak dituztenak izango dira, hala nola: <i>iturgina, polizia, suhiltzailea, idazkaria, emagina</i> eta <i>futbolaria</i>.</p> <p>Ikasle guztiek 6ak topatzen dituztenean, taldeka jarriko dira. Taldeak 5/6 pertsonaz osotuta egongo dira, zoriz aukeratuko diren neskaz eta mutilez osotutakoak. Orain, 4. fitxan agertzen diren galderei erantzuna eman beharko diete. Hau egiten dutenean, taldez talde ozen esaten joango dira. Txandak errespetatzen direla bermatzeko, pilota erabiliko da. Beraz, momentuan pilota duenak txanda izango du gainontzekoak entzuten duten bitartean.</p>	

Ebaluazioa:

- 2. eta 3. fitxak
- Behaketa

3. Saioa. Zuen pertsona ideala	
Lekua:	Ikasgela barruan
Materiala:	
<ul style="list-style-type: none"> • Pankartak egiteko erabiltzen diren paper zati handiak eta margoak, arbelean idazteko boligrafoak eta kartulina zati txikiak 	
Denbora:	45 minutu
Helburuak:	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleek sexuarekiko eta generoarekiko dituzten aurreiritziak ezagutzea • Gizartean ezarrita dauden rolez eta estereotipoez jabetzea eta estereotipoei aurre egiteko jarrerak izatea • Aniztasuna modu positiboan baloratzea
Taldekatzeta:	5/6ko talde mixtoak
Jardueraren azalpena:	
<p>Ariketarekin hasteko, ikasleak lau taldetan banatuko dira. Ikasleak 5/6ko taldetan banatuko dira, eta zoriz aukeratuta, neskak eta mutilak nahastuta egongo dira.</p> <p>Jarraian, talde bakoitzari bere emakume eta gizon ideala margotzea eskatuko zaio, hau da, talde bakoitzak bi irudi sortuko ditu, bata emakume eta bestea gizon idealaren irudia, hau da, buruan idealizatuta duten gizon eta emakume idealaren irudia.</p> <p>Marrazten bukatzen dutenean, irudi guztien artean existitzen diren antzekotasunak bilatuko dira. Hau eginda dagoenean, irakasleak kartulina zati txikiak emango dizkio talde bakoitzari, eta horietan hitzak egongo dira idatzita. Hitz guztiak hirukoiztuta egongo dira, hau da, hitz bakoitza hiru papertxo diferentetan agertuko da. Hitzak honako hauek izango dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gona • Sentibera • Gorputzean ileak • Belarritakoa • Esku-muturrekoa • Begietako arkatza 	

- Arrakada

Ikasleek kartulina zati txiki horiek gizon edo emakumearen gainean itsatsiko dituzte, euren iritziaren arabera. Adibidez: kartulinan agertzen den hitza “gona” hitza bada, eta ikasleek gona hitza emakume/gizonezkoarekin bat egiten duela uste badute, nahi duten irudiaren gainean itsatsiko dute. Bietan kontzeptu bera itsastea posible izango da. Horretaz gain, orri zati txikiak zuriz emango zaizkie, eta hauetan, ikasleek, nahi dituzten ezaugarriak idatzi beharko dituzte. Idazten bukatzen dutenean, gizonaren edo emakumearen irudiaren gainean kokatuko dituzte.

Hirugarren kartulina zatia, arbelean idatzita egongo diren bi zutabetan kokatzeko balio izango du. Zutabe batean “*sexu*” kontzeptua eta besten “*genero*” kontzeptua idatzita egongo dira. Jarduerarekin bukatzeko, beraz, hirugarren kartulina zatia bi zutabeetako batean kokatu beharko dute, bada, hurrengo saioetan ikasiko dute benetan sexu eta genero kontzeptuen arteko desberdintasuna zein den.

Ebaluazioa:

- Margotu beharreko gizon eta emakumeak
- Irakasleak emandako hitzen kokapena
- Idatzi beharreko hitz berriak

4. Saioa. Sexua eta generoa	
Lekua:	Ikasgela barruan
Materiala:	
<ul style="list-style-type: none"> • Orrialde zati bat ikasle bakoitzarentzako, idazteko materiala, ordenagailua eta proiektorea 	
Denbora:	1go fasea: 20 minutu 2. fasea: 10 minutu 3. fasea: 15 minutu
Helburuak:	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleek sexuarekiko eta generoarekiko dituzten aurreiritziak ezagutzea • Sexu eta genero kontzeptuen definizioak ulertzea, bata eta bestearen artean dauden diferentziaz jabetzea eta adibideak jartzeko gai izatea • Gizartean ezarrita dauden rolez eta estereotipoez jabetzea eta estereotipoei aurre egiteko jarrerak izatea
Taldekatzeta:	45 minutu bakarka
Jardueraren azalpena:	
<p>Saioaren lehenengo fase honetan, ikasle bakoitzari orrialde zati bat emango dio irakasleak. Orrialde horretan esaldiak agertuko dira, eta ikasleek hitz horiek sexu edo genero hitzekin lotu beharko dituzte (ikus 5. fitxa).</p> <p>Saioaren bigarren fasean, ikasleek, nik sortutako bideoa ikusiko dute. Bideoan, <i>sexu</i> eta <i>genero</i> hitzen arteko diferentziak eta hauen esanahia azalduko dira. Hona hemen bideoa ikusteko link-a: https://youtu.be/CwA2kbFOESk</p> <p>Hirugarren fasean, lehenengo jardueran jarri dutena aldatzeko aukera izango dute.</p> <p>Hau da, baliteke esaldiren bat <i>sexu</i> edota <i>genero</i> hitzarekin lotu izana. Bada, oraingo honetan, jada bideoa ikusi dutela eta kontzeptuak argiago dituztela, esaldien eta kontzeptuen arteko loturak aldatzeko aukera izango dute.</p>	
Ebaluazioa:	<ul style="list-style-type: none"> • 4. fitxa • 4. fitxan egiten diren aldaketa posibleak

	<ul style="list-style-type: none">• Behaketa
--	--

5. Saioa. Nork egiten du lan?	
Lekua:	Ikasgela barruan
Materiala:	
<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleek bete beharreko orrialde zatiak eta pilota 	
Denbora:	1go fasea: 20 minutu 2. fasea: 25 minutu
Helburuak:	<ul style="list-style-type: none"> • Gizartean ezarrita dauden rolez eta estereotipoez jabetzea eta estereotipoei aurre egiteko jarrerak izatea
Taldekatzea:	1go fasea: 5/6ko talde mixtoak 2. fasea: bakarka
Jardueraren azalpena:	
<p>Bosgarren saio honen lehenengo fasean, ikasleak 5/6ko taldetan banatuko dira. Taldeak zoriz aukeratuko diren neskaz eta mutilez osotuta egongo dira. Talde guztiei bi irudi banatuko zaizkie, eta irudiak jaio berriak diren haurrenak izango dira. Irudien azpian “Ane” eta “Markel” izenak jarriko dira. Jarraian, orrialde zati bat banatuko zaio talde bakoitzari, eta bertan, zenbait galdera idatzita egongo dira (ikus 6. fitxa). Ikasleek, taldeko lanarekin, galderei erantzuna eman beharko diete, eta bukatzean, erantzun guztiak elkarbanatuko dira. Irakaslea eztabaida gidatzen saiatuko da, erantzun guztien artean dauden antzekotasunak eta desberdintasunak kontrastatuz.</p> <p>Bigarren fasea aurrera eramateko ikasleek banaka egingo dute lan. Bakoitzari fitxa bana banatuko zaio eta fitxa horretan, zenbait lan aurkeztuko dira, hala nola: sukaldatzearena, garbitzearena, lisatzearena, seme-alabak eskolara eramatearenak, seme-alabekin jolastearena, autoa garbitzearena eta abar. Jarraian, etxeko partaideak agertuko dira: ama, aita, anai-arreba, besteren bat. Ikasleek x batekin markatu beharko dute uste duten hutsunean. Gainera, zenbateko maiztasunarekin egiten duten ere markatu beharko dute zenbait ikurren bitartez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - * maiztasun handiarekin - \wedge batzuetan - 0 inoiz ez 	

Saioari bukaera emango zaio hausnarketarako tartea eskainiz. Galderak irakasleak egingo ditu (Ikus 7. fitxa) eta ikasleek erantzuna eman beharko dute. Txandak errespetatuak izan daitezen, pilota bat erabiliko da. Horrela, momentuan pilota duenak hitz egiteko txanda izango du, eta gainontzekoek, txanda errespetatu beharko dute. Bestetik, etorkizuneko gizon eta emakume gisa, egoerak horrela jarraitzea gustatuko litzaieken galdetuko zaie.

Ebaluazioa:

- 5. fitxa
- 6. fitxa

6. Saioa. Transexualitatea	
Lekua:	Ikasgela barruan
Materiala:	
<ul style="list-style-type: none"> • Panpinak eta panpinentzako arropak, orrialde zatiak eta idazteko materiala 	
Denbora:	1go fasea: 10 minutu 2. fasea: 10 minutu 3. fasea: 25 minutu
Helburuak:	<ul style="list-style-type: none"> • Transexualitatearen errealitatea ikasgelara hurbiltzea • Transexualitatearekiko enpatia eta errespetua garatzea • Aniztasuna modu positiboan baloratzea
Taldekatzeta:	1go fasea: 7ko talde mixtoak 2. fasea: 7ko talde mixtoak 3. fasea: bakarka
Jardueraren azalpena:	
<p>Egun honen hasieran, ikasleei 7ko talde mixtoetan banatzea eskatuko zaie, lehenengo jarduera hau, bada, taldeka buru beharko dutelako. Aurretiaz ikasgelan bete behar bat emango zaio talde bakoitzari. Jolas orduan, ikastetxeko partaide diren 5 pertsonari galdera hau egin behar diete: <i>“Zer da transexualitatea?”</i>. Erantzunak orrialde batean batu beharko dituzte, eta jolas ordua pasata, ikasgelara bueltatzen direnean, erantzunak ozenean elkarbanatuko dira. Gainera, batzuen eta beste batzuen artean dauden diferentziak eta antzekotasunak bilatuko dira, azkenean, irakaslearen laguntzarekin, <i>“Zer da transexualitatea?”</i> galderari garatutako erantzuna ematen zaiola.</p> <p>Bigarren fase honetan, talde berdinak mantenduko dira. Talde bakoitzak panpin bat izango du, batzuek sexuz emakumezkoak eta beste talde batzuek sexuz gizonezkoak izango dira (panpinak zoriz aukeratuko dira zein taldetan egongo diren). Panpinez gain, irakasleak sortutako arropak ere banatuko dira (goma-eba materialaz sortuak), eta ikasleek, panpina jantzi beharko dute.</p> <p>Saioari amaiera emateko, hirugarren jarduera bat gauzatuko da. Ariketa burutzeko, ikasleak banaka jarriko dira, horrela, konparatzeko hainbat eredu izango ditugu. Hau</p>	

burutzeko ikasle bakoitzak orri zati bat behar izango du. Jarraian, irakasleak honako galdera hauek egingo ditu:

- *Nolakoa da?*
- *Zelan deitzen da zure pertsonaia?*
- *Zenbat urte ditu?*
- *Zerekin jaio zen?*
- *Zer sentitzen da?*
- *Pozik al dago sentitzen denarekin?*
- *Zelako arropa darama?*
- *Zein da praktikatzen duen kirola?*
- *Zeintzuk adornu daramatza?*

Ikasle bakoitzak bere eredia sortuko du. Guztiei eredia azaltzeko eskaintza egingo zaie, eta honela, denen artean dauden antzekotasunak eta desberdintasunak ikusteko aukerak egongo dira. Ariketarekin bukatzeko, taldeak egingo dira (aurreko jarduerako taldeak). Behin taldeak eginda, irakasleak galderaz osatutako orrialde bat banatuko dio talde bakoitzari, (ikus 8.fitxa). Ikasleek, galdera hauei erantzuna topatu beharko dizkiete. Bukatzean, mahai inguru antzeko bat sortuko da eta talde bakoitzak emandako erantzunak ozen esango ditu.

Ebaluazioa:

- Behaketa
- Panpinen janzkera
- Ikasleek sortzen duten pertsonaia
- 7. fitxa

7. Saioa. Rol Playing	
Lekua:	Ikasgela barruan
Materiala:	
<ul style="list-style-type: none"> • Ordenagailua, proiektorea eta pilota 	
Denbora:	1go fasea: 25 minutu 2. fasea: 20 minutu
Helburuak:	<ul style="list-style-type: none"> • Transexualitatearen errealitatea ikasgelara hurbiltzea • Transexualitatearekiko enpatia eta errespetua garatzea • Aniztasuna modu positiboan baloratzea
Taldekatzea:	1go fasea: 7ko taldeak 2. fasea: talde osoa
Jardueraren azalpena:	
<p>Ikasleek saioaren lehenengo fase honetan Rol Playing bat prestatu beharko dute. Rol Playing honetan, ikasle transexualek eskola eremuan bizi ohi dituzten egoerak antzeztu beharko dituzte. Aurreiritzirik ez dute jasoko honen inguruan, ez behintzat irakaslearen aldetik, hortaz, ikasleek, euren ideietatik abiatuz sortuko dituzte egoerak. Taldeka burutuko dute jarduera, eta talde bakoitzak 5 minutuko Rol Playing-a egingo du. Denbora emango zaie Rol Playing-a prestatzeko eta ostean, talde guztiek sortutakoa antzeztuko dute.</p> <p>Aurreko jarduerarekin lotuta, saioaren bigarren fase honetan ikasleek bideo bat ikusiko dute. Bideo honen bitartez, ikasle askok sufritzen duten errealitatea aurkeztuko zaie. Hona hemen bideoa ikusteko link-a: https://www.youtube.com/watch?list=RDCf79KXBCIDg&v=Cf79KXBCIDg.</p> <p>Bideoa ikusi ostean hausnarketarako tartea irekiko da. Hausnarketa, mahai inguru antzeko baten bitartez egiten saiatuko da. Horretarako, irakasleak, gidari lana egingo du. Lehenik eta behin ikasleek ikusi dutena azaltzeko eskatuko zaie, eta horretarako eta txandak errespetatzen dituztela bermatzeko, irakasleak pilota bat erabiliko du. Beraz, pilota eskuan duenak izango du berba egiteko aukera gainontzekoek arretaz entzuten duten bitartean. Bideoa azaltzen bukatzen dutenean, nahi dituzten komentarioak</p>	

egiteko aukera izango dute. Gainera, irakasleak, zenbait galdera prestatuta izango ditu eta honako hauek izango dira:

- Zer da bideo honetan gertatzen dena?
- Aurreko saioan egindako ariketarekin zerikusia duela uste duzue (panpinak janztearena)? Zein da antzekotasuna?
- Zelan uste duzue jokatzeko dutela bideoan agertzen diren pertsonak?
- Errespetuz jokatzeko dutela uste duzue?
- Zelan uste duzue sentitzen dela umea?
- Zer esango zenioke bideoan agertzen den umeari?
- Nola uste duzue jokatzeko zenuketela zuek?
- Zein izango litzateke zuen ustetan portaerarik bikainena?

Jarrera egokirik ikusten duzu bideoan zehar?

Ebaluazioa:

- Behaketa
- Rol Playing-a
- Irakasleak egindako galderen erantzuna

8. Saioa. Transexualitatea eta kirola	
Lekua:	Ikasgela barruan
Materiala:	
<ul style="list-style-type: none"> • Ordenagailua eta proiektorea, Hugoren artikulua eta behar den eranskinetako txostena 	
Denbora:	1go fasea: 10 minutu 2. fasea: 35 minutu
Helburuak:	<ul style="list-style-type: none"> • Transexualitatearen errealitatea ikasgelara hurbiltzea • Transexualitatearekiko enpatia eta errespetua garatzea • Aniztasuna modu positiboan baloratzea
Taldekatzea:	1go fasea: bakarka 2. fasea: bakarka 3. fasea: 5/6ko talde mixtoak
Jardueraren azalpena:	
<p>Zortzigarren saio honi hasiera emateko, ikasleei bideo bat erakutsiko zaie. Bideoa komikiekin osotuta dago, eta transexualitatea modu erakargarrian azaltzen du. Bideoa honako link honetan ikus daiteke: https://www.youtube.com/watch?time_continue=156&v=ng3Im2F4_98.</p> <p>Jarraitzeko, bigarren fase honetan ikasleek artikulua bat irakurriko dute (ikus 9. fitxa). Artikulu hau transexualitatea ikasgelara hurbiltzeko balio izango du, kasu erreal eta inguru hurbilekoa baita. Oraingo honetan, jarduera bakarka burutuko da, izan ere, guztiek ondo irakurtzea eta kontziente izatea da interesgarriena.</p> <p>Behin ikasle guztiek artikulua irakurri dutela, taldeko lanari ekingo diote. Taldeak 5/6 pertsonaz osotutako talde mixtoak izango dira. Batetik, irakurritakotik ateratzen dituzten elementu ohikoak identifikatzea eskatu zaie. Bestetik, ez ohikoak egiten zaizkienak bilatzea eskatuko zaie. Hau bukatuta, talde guztiek hausnartutakoa eta komentatutakoa ozenean esango dute. Ostean, aurreko bideoan ikusitakoaren eta Hugoren berrian irakurritakoaren artean dauden antzekotasunak aterako dituzte, eta horretarako, orri bat banatuko zaie taldean bertan zenbait galdera erantzuteko (ikus 10. fitxa).</p>	

Ebaluazioa:

- Behaketa
- 9. fitxa

9. Saioa. Kaixo Hugo!	
Lekua:	Ikasgela barruan
Materiala:	
<ul style="list-style-type: none"> • Orrialdeak, idazteko materiala eta pilota 	
Denbora:	1go fasea: 25 minutu 2. fasea: 20 minutu
Helburuak:	<ul style="list-style-type: none"> • Transexualitatearen errealitatea ikasgelara hurbiltzea • Transexualitatearekiko enpatia eta errespetua garatzea • Aniztasuna modu positiboan baloratzea
Taldekatzea:	1go fasea: 5/6ko talde mixtoak 2. fasea: 5/6ko talde mixtoak
Jardueraren azalpena:	
<p>Saio hau bi fasetan egongo da banatuta. Lehenengo fasean, ikasle bakoitzak eskutitz bat idatzi beharko dio Hugori. Jakin badakite egoera zein izan den, artikulua irakurri izan baitute. Orain, irakurri dutenean sentitu izan dutena transmititzeko aukera izango dute. Edozer gauza idazteko aukera luzatuko zaie, beti ere errespetuz jokatzeko badute.</p> <p>Bigarren fase honetan, gutuna bukatzean, ozen irakurtzeko aukera izango dute. Idazten bukatzen dutenean, ozen elkar banatzeko aukera izango dute. Aurreko saioetan gauzatu den moduan, txandak errespetatuak izan daitezten, pilota erabiliko da. Horrela, momentuan pilota duenak izango du hitz egiteko aukera, gainontzeko ikaskideek errespetuz entzuten duten bitartean.</p>	
Ebaluazioa:	<ul style="list-style-type: none"> • Gutunean idatzitako edukia • Behaketa

10. Saioa. Komun Komunik	
Lekua:	Ikasgela barruan
Materiala:	
<ul style="list-style-type: none"> • Beharrezkoak diren irudiak, orrialde zatiak eta idazteko materiala 	
Denbora:	1go fasea: 20 minutu 2. fasea: 25 minutu
Helburuak:	<ul style="list-style-type: none"> • Transexualitatearen errealitatea ikasgelara hurbiltzea • Transexualitatearekiko enpatia eta errespetua garatzea • Aniztasuna modu positiboan baloratzea
Taldekatzea:	1go fasea: 5/6ko talde mixtoak 2. fasea: 5/6ko talde mixtoak
Jardueraren azalpena:	
<p>Lehenengo fase honetan jarduera hau egiteko ikasleak taldeka jarriko dira. Taldeak mixtoak izango dira eta zoriz aukeratuko dira, neskak eta mutilak nahastuta daudela. Jarraian, komunitan ohikoak diren irudiak (neskarena eta mutilarena dela adierazten duen irudia) aurkeztuko zaizkie (ikus 11. fitxa). Bukatzeko, galdera hauek egingo zaizkie:</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Zer uste duzue senti dezaketela transexualek bi irudi hauen aurrean?</i> • <i>Non eman daitezke antzeko egoerak?</i> • <i>Ikastetxe barruan eman daitekeela uste duzu?</i> <p>Ikasleak, taldeka, galdera hauei erantzuna ematen saiatuko dira. Gero, taldeko eztabaida bat bultzatuko da. Jada erantzun guztiak emanda daudenean, ikaskideekin elkar banatzeko aukera izango dute.</p> <p>Bigarren fase honetan, ikasleek talde berdinetan jarraituko dute. Aurreko jardueraren ildo beretik, oraingo honetan, German Urteaga transexualak esandako hitzak aurkeztuko zaizkie: <i>“Trans jendearentzat leku deserosoak dira aldagelak eta komunak. Transfobia gehien dagoen tokietako bat da. Eta ez da hain zaila hori konpontzea: aldagela eta komun komunak jarri behar dira, ateetako ikurrak kendu eta barruan</i></p>	

dutxa eta komun indibidualak jarri. Generoa ez da binarioa, eta, bi ate bakarrik uzten badira, non sartzen dira besteak?”.

Ikasleak, taldeka jarrita hitz hauek komentatu beharko dituzte. Bukatzen dutenean, talde bakoitzak idatzitakoa ozen esango du. Irakasleak hausnarketa gehiago garatu ahal duela uste badu, galdera batzuk izango ditu prest ikasleek erantzuteko.

- Zergatik uste duzue hitz hauek esaten dituela Germanek?
- Zergatik uste duzue leku deserosoak direla?
- Zer uste duzue sentitzen dutela momentu horietan?
- Zelan uste duzue jokatu zenuketela zuek?
- Antzeko kasuren bat ezagutu duzue inoiz?
- Zein irtenbide posible dagoela uste duzue?
- Zerbait egin dezakegu?
- Ikasle moduan, ikastetxean bertan zerbait alda daitekela uste duzue?

Ebaluazioa:

- Behaketa
- Hausnarketa tartean esaten diren edukiak
- Galderen erantzunen edukia

11. Saioa. Egunerokotasuneko egoerak	
Lekua:	Ikasgela barruan
Materiala:	
<ul style="list-style-type: none"> • Kartulina zatiak eta idazteko materiala 	
Denbora:	1go fasea: 10 minutu 2. fasea: 10 minutu 3. fasea: 25 minutu
Helburuak:	<ul style="list-style-type: none"> • Transexualitatearen errealitatea ikasgelara hurbiltzea • Transexualitatearekiko enpatia eta errespetua garatzea • Aniztasuna modu positiboan baloratzea
Taldekatzeta:	1go fasea: 5/6ko talde mixtoak 2. fasea: 5/6ko talde mixtoak 3. fasea: 5/6ko taldeak
Jardueraren azalpena:	
<p>Hamaikagarren saio hau, emozio eta sentipenei bideratuta egongo da. Hasteko, lehenengo faseari hasiera emateko, ikasleak zoriz aukeratuko diren talde mistoetan jarriko dira. Taldetan jarrita daudenean, irakasleak taldean komentatu beharreko honako galdera hauek botako ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Nola sentitzen zarete zuek egun txarra duzue? • Nola sentitzen zarete errespetatuak izan ez zaretenean? • Nola sentitu izan zarete egiten duzuen guztiagatik azalpenak eman behar dituzue? • Aske sentitzea gustatzen zaizue? <p>Galdera hauek, esan bezala, taldean komentatzekoak izango dira. Bigarren fasean, ikasleen parte-hartzea garrantzitsua izango da. Irakasleak zenbait kartulina zati banatuko dizkio talde bakoitzari (ikus 12. fitxa), eta kartulina horietan egora diferenteak egongo dira idatzita. Egoera guztiak transexualek egunerokotasunean bizi ahal dituztenak dira. Ikasleak kartulinak irakurri, eta beste 10 minutu emango zaizkie euren artean hauek komentatzeko.</p>	

Hirugarren faseak 25 minutu iraungo ditu eta sentimenduak sartuko dira erditik. Izan ere, ikasleak egoerak irakurri, eta egoera bakoitzari 3 sentimendu atxikituko dizkio, egoerarekin bat datorrela uste duten sentimendua. Guztiekin gauza bera egiten dutenean, irakasleak taldez-talde txanda ematen joango da, eta komentatu eta idatzi dituzten sentimenduak esan beharko dituzte. Irakasleak, bitartean, aipatutako sentimenduak arbelean idatziko ditu; seguruenik, bat baino gehiago errepikatu egingo da eta ikasleek horretaz konturatzea nahi du. Talde guztiek parte hartzen dutenean, irakasleak mahai-inguru antzeko bati hasiera emango dio galdera honen bitartez: “*Zer sentitu izan duzue egoera bakoitza irakurri duzuen bakoitzean?*”. Hala ere, egiteko beste hainbat galdera ere prestatuta izango ditu (ikus 13. fitxa).

Ebaluazioa:

- Behaketa
- Hitz egitean esaten dituzten edukiak
- Sentimenduak
- Galderen erantzunak

12. Saioa. “Ur-handitan”	
Lekua:	Ikasgela barruan
Materiala:	
<ul style="list-style-type: none"> • Ordenagailua eta proiektorea 	
Denbora:	45 minutu
Helburuak:	<ul style="list-style-type: none"> • Transexualitatearen errealitatea ikasgelara hurbiltzea • Transexualitatearekiko enpatia eta errespetua garatzea • Aniztasuna modu positiboan baloratzea
Taldekatzea:	45 minutu bakarka
Jardueraren azalpena:	
<p>Bukatzen joateko, “Ur-handitan” telesaileko bideo luzea jarriko zaie ikasleei. Bertan, transexualitate egoera bizi izan duten hainbat umeren kasua azaltzen da. Ikasleak, eroso jarriko dira ikasgelan bideoa ikusteko. Hona hemen bideoa ikusteko link-a: https://www.youtube.com/watch?v=EE4-zM0bRlw</p>	
Ebaluazioa:	<ul style="list-style-type: none"> • Behaketa

13. Saioa. Mahai-ingurua	
Lekua:	Ikasgela barruan
Materiala:	
<ul style="list-style-type: none"> • Pilota 	
Denbora:	1go fasea: 20 minutu 2. fasea: 25 minutu
Helburuak:	<ul style="list-style-type: none"> • Transexualitatearen errealitatea ikasgelara hurbiltzea • Transexualitatearekiko enpatia eta errespetua garatzea • Aniztasuna modu positiboan baloratzea
Taldekatzea:	45 minutu talde osoa batera
Jardueraren azalpena:	
<p>Saio honen lehenengo 20 minutuak, aurreko saioan ikusitako bideoa gogoratzeko emango dira. Hala ere, edozein gauza esan ditzakete, adibidez: bideoa ikustean sentitu izan dutena, nola uste duten jokatu dutela bideoak agertzen diren pertsonak eta abar. Beraz, ikasle eta irakaslearen artean, ideian jariora egingo da. Txandak errespetatuak izan daitezten, pilota erabiliko da, beraz, momentuan pilota duenaren txanda denean, beste ikaskide guztiek arretaz eta errespetuz entzun beharko dute. Ikasle guztiei hitz egiteko aukera emango zaie.</p> <p>Bigarren fase honetarako, ikasleek borobil batean jarriko dituzte mahai guztiak eta mahai-inguru bat sortuko da. Irakasleak zenbait galdera izango ditu prestatuta (ikus 14. fitxa), eta hortik abiatuta, eztabaida/elkarrizketa bat sortzen saiatuko da. Ikasleen arteko txandak errespetatzeko, pilota erabiliko da berriro ere.</p>	
Ebaluazioa:	<ul style="list-style-type: none"> • Behaketa • Erantzunen edukiak

5.2. Kronograma

KRONOGRAMA		
ASTEAK	SAIOAK	DESKRIBAPENA
1. astea	1. saioa. Aurreideiak	Saio honetan burutuko diren jarduerak ikasleek genero eta generoaren rolekiko dituzten aurre ideiak ezagutzeko egingo dira.
2. astea	2. saioa. Egoeraz aztertzen	Ikasleei zenbait egoeraren aurrean jarriko zaie. Taldeko lanaren bitartez, egoera hauei irtenbidea eman beharko diote.
3. astea	3. saioa. Zuen pertsona ideala	Ikasleak genero eta genero rolekiko dituzten aurre irizitziak ezagutzeko balioko du.
4. astea	4. saioa. Sexua eta generoa	Saio honetan ikasleek sexua eta generoa hitzen arteko diferentzia ezagutu eta hauen esanahiak ezagutuko dituzte.
5. astea	5. saioa. Nork egiten du lan?	Saio honetan ikasleek genero rolak etxeko eginbeharrekin lotuko dituzte.
6. astea	6. saioa. Transexualitatea	Saio honetan transexualitatearen errealitatea ikasgelara hurbilduko da.
7. astea	7. saioa. Rol Playing	Transexualitatea bizi duten gazteekiko empatia eta errespetua garatzeko burutuko da jarduera.
8. astea	8. saioa. Transexualitatea eta kirola	Transexualitatea bideo eta artikulatu baten bidez aurkeztuko zaie. Ikasleak, taldeka jarrita, egoerari buruzko hausnarketa aurrera eraman beharko dute.
9. astea	9. saioa. Kaixo Hugo!	Saio honetan transexualitatea bizi izan duen pertsona bati gutuna idazteko aukera izango dute.
10. astea	10. saioa. Komun komunak	Ikasleak egunerokotasunean suerta daitekeen transfobiaz kontziente egingo dira.
11. astea	11. saioa. Egunerokotasun egoerak	Ikasleei transexualek egunerokotasunean bizi ditzaketen egoerak aurkeztuko zaizkie. Hauekiko errespetua garatzea eta egoera hauek hausteko jarrera izatea da helburua. Gainera, sentimenduak ere aipatuko dira.
12. astea	12. saioa. "Ur-handitan" 13. saioa. Mahai-ingurua	Ikasleei saio oso batean zehar transexualitatea bizi izan duten gazte eta helduen kasua aurkeztuko zaie. Hurrengo saioan, irakasleak zenbait galderen bitartez gidatzen duela, mahai-inguru bat antolatuko da bideoari buruz komentatzen eta gaiaren inguruko hausnarketa egiten.

5.3. Fitxak

1. Fitxa

- Zenbatek margoztu duzue taldean “futbolari” hitza mutil moduan? Zenbatek neska moduan? _____
- Zeintzuk ezaugarriekin margotu dituzue? _____

- Zergatik uste duzue antzekotasun hauek gertatzen direla? _____

- Inoiz entzun al duzue “neskek ezin dute hori egin” esaldia? _____
- Askotan gertatzen dela uste duzue? _____
- Gauza hauek guztiak barneratuta dituzuela uste duzue? Zergatik? _____

- Zergatik lotzen dugu gehienetan irakasle hitza neska batekin? _____

- Honi aurre egiteko zerbait egin dezakezuela uste duzue? _____

2. FITXA

Lehenengo egoera:

Marrazki honetan agertzen den gaztetxoa Ane deitzen da. Ane ederto moldatzen da futbolean baina Enekok dio Anek ezin duela jolastu. Zergatik uste duzue ezin duela jolastu? Ezagutu al duzu inoiz horrelako egoerarik? Noizbait antzeko jokatu duzue?



Bigarren egoera:

2.egoera: Xabierrek 6 urte ditu eta panpinekin jolasten asko dibertitzen da. Gainera, nagusitan, aitatxo izan nahi du. Bere amak dio panpinekin jolastea nesken gauza dela. Zer uste duzu zuk? Nesken gauza dela uste al duzu? Normala iruditzen zaizu Xabierrek panpinekin jolastea?



Hirugarren egoera:

3.egoera: Mikel ikasle fina da. Egunero eskolako jantokian bazkaldu eta gero, bere klase kideak dantzara joaten direla ikusten du, eta bera ere gustura joango litzatekela pentsatzen du maiz. Zer esango zenioke lagun moduan?



3. FITXA

HAUSNARKETARAKO GALDERAK

- Neskak eta mutilak “x” gauzetara jolastu behar dugula uste duzue? _____

- Uste duzue rol jakin batzuk ezarrita daudela neska eta mutilek egin behar duguna definitzeko? _____

- Rol horiek jarraitzen ditugula uste duzue? Zergatik? Jarri adibideren bat. _____

- Kirola egiterako orduan, neska ala mutila izateak inporta duela uste duzue? _____

- Noizbait bazterketa kasuren bat ezagutu izan duzue antzeko kasuren bategatik? _____

- Ezagutu izan baduzue, zein izan zen kasua? Nola jokatu zenukete zuek horrelako kasu baten aurrean? _____

4. FITXA

L	O	S	B	A	I	P	U	R	U	A	K	M
M	T	E	O	K	S	O	T	L	A	E	G	P
T	S	L	M	N	I	L	B	O	L	T	A	N
S	K	M	T	A	N	I	G	R	U	T	I	S
A	S	O	O	B	G	Z	X	H	T	B	R	I
K	B	K	L	Z	L	I	H	P	L	Z	A	N
P	O	P	I	X	M	A	N	U	L	U	K	X
O	A	R	H	L	N	P	I	A	X	I	Z	P
S	U	H	I	L	T	Z	A	I	L	E	A	J
L	P	U	E	O	E	P	H	U	I	X	D	T
L	E	X	F	U	T	B	O	L	A	R	I	A

HAUSNARKETARAKO GALDERAK

- Zelan margoztuko zenituzkete hitz hauek? Ze sexu erabiliko zenukete hitz bakoitzarekin? _____

- Zuetako norbaiti gustatuko litzaioke horrelako lanbideren baten lan egitea? _____

- Zeintzuk gaitasun dira beharrezkoak lanbide hauetan lan egiteko? _____

- Uste duzue emakume eta gizon kopuru berdinak daudela lanbide bakoitzean? Zergatik uste duzue hori gertatzen dela? _____

- Uste duzue emakumeek eta gizonek lana berdinekin egin ahal dutela? _____

- Nork uste duzue hobeto egingo lukeela lan lanbide hauetako bakoitzean? _____

5. FITXA

Lotu orrialde honetan agertzen diren esaldiak “*sexu*” edo eta “*genero*” kontzeptuekin.

- Ni aluarekin jaio naiz, beraz, biologikoki emakumea naiz. _____
- Nagusi egin naizen heinean, gona erabili dezakedala ohartu naiz. _____
- Zakilarekin jaio direnak gizonezko moduan tratatzen dituzte. _____
- Gizonak emakumeak baino ausartagoak dira. _____
- Emakume bat eta gizon bat batera egotea da bikote ideala. _____
- Ni zakilarekin jaio naiz, beraz, biologikoki gizona naiz. _____
- 22 urte ditut, 1,75 m neurtzen dut eta 65 kg-ko pisua daukat. Hala ere, 5 kilo argaldu nahi ditut. _____
- Nire etxean amak prestatzen du bazkaria. _____
- Nerea deitzen naiz eta futbolera jokatu nahi dut. Hala ere, klubak ez ditu neskak mutilen taldean onartzen. Hori dela eta, beste kirol bat egitera apuntatu behar izan naiz. _____
- Ni Amaia deitzen naiz eta alua daukat. _____
- Nire etxean aitak konpontzen du autoa. _____
- Ni Ane deitzen naiz eta emakume sentitzen naizen arren, errugbia egitea gustatzen zait. Nire klasekoek “mari-mutila” naizela esaten dute. _____
- Nire nebak gaur gona bat jarri du eta ni lotsatuta joan naiz bere alboan eskolara. _____
- Gaur mutilek futbol txapelketa jolasten zuten bitartean, neskak albo batean pankartekin animatzen zeuden. Futbol partidan, neska bakarra zegoen. _____
- Jaio nintzenean zakilarekin jaio nintzen, baina orain genitalak aldatu ditut eta neska naiz. _____

6. FITXA

- Zelako gaitasunak uste duzue izango dituela Anek? Eta Markelek? _____

- Zein uste duzue izango dela Aneren kolorerik gustukoena? Eta Markelena? _____

- Zertara jolastuko du Anek 2 urte betetzen dituenean? Eta Markelek? _____

- Zertara uste duzue jolastuko duela Anek zuen urteak betetzen dituenean? Eta Markelek? _____

- Zelan jantziko da Ane zuen adina duenean? Eta Markel? _____

- Zertan uste duzue egingo duela lan Anek? Eta Markelek? _____

- Zelan uste duzue izango dela Ane nagusi egiten denean? Eta Markel? _____

- Zelan uste duzue izango dela Aneren bizitza? Eta Markelena? _____

- Zergatik uste duzue zenbait kolore, arropa, gaitasun, jostailu, lanbide, bizitza edo eta espektatiba neskekin lotuta daudela eta beste asko mutilekin? _____

- Zergatik jaiotzean mutilak urdinez eta neskak arrosaz janzten ditugu? _____

- Zergatik uste duzue emakumeengatik amatasuna espero dela? _____

- Zergatik uste duzue gizezkoengandik lanpostu ona eta ahalik eta gorenera heltzea espero dela? _____

7. FITXA

LANA	AMAK	AITAK	ANAI-ARREBAK	BESTE BATEK
Bazkaria prestatu				
Ontziak garbitu				
Lisatu				
Autoa konpondu				
Erosketak egin				
Komunak garbitu				
Hautsa kendu				
Garbigailua martxan jarri				
Txikia nintzenean eskolara eraman				

HAUSNARKETARAKO GALDERAK. IRAKASLEARENTZAKO GALDERAK

- Nork egiten ditu lan gehiago? Emakumezkoak ala gizonezkoak?
- Zein da arrazoia? Emakumeek trebetasun handiagoak dituzte lanak egiteko? Zergatik? Ikasitako trebetasuna edo jaiotzetik daukagun trebetasuna al da?
- Uste duzue antzinako garaia eta oraingo garaia arlo horretan desberdinak direla?
- Zelan uste duzue ikasten dela hori guztia egiten?
- Noizbait pentsatu duzu egoera honen inguruan?
- Pentsatu baduzue, zer da pentsatu izan duzuen? Orain pentsatu izan baduzue, zer uste duzue?
- Etorkizuneko emakume eta gizon gisa, egoerak horrela jarraitzea gustatuko litzaizueke?
- Zer aldatuko zenukete?
- Guztiok lan eginez gauzak aldatu daitezkeela uste duzue?

8. FITXA

- Zenbatek deskribatu dituzue neskak? _____
- Zenbatek deskribatu dituzue mutilak? _____
- Nesken artean, zenbatek jarri duzue aluarekin jaio dela? Zergatik?

- Mutilen artean, zenbatek jarri duzue zakilarekin jaio zela? Zergatik?

- Zeintzuk antzekotasun eta zeintzuk desberdintasun ikusten dituzue batzuen eta beste batzuen artean? _____

- Zein da daraman arropa? _____

- Zein kirol praktikatzen du zuen pertsonaiak? _____
- Zer da arreta gehien deitu dizuenena? _____
- Zergatik uste duzue gertatu dela hau? _____

- Zergatik uste duzue egin dugula jarduera hau? _____

- Zerbait ikasi duzuela uste duzue? _____

- Irakasleak deskribatutakoa harritu zaitue? _____
- Zer da harritu zaitueena? _____

- Zergatik uste duzue nire pertsonaia horrela deskribatu dudala?

9. FITXA

HUGOREN ISTORIOA

Futboleko Koordinatzaile izateak, klubak behar duen prestakuntzarekin zerikusia duen edozein gauza antolatzea eskatzen du, bai entrenatzaileak, bai entrenamenduak, partiduak, emaitzak, jokalaria, ordutegiak, kategoriak, bidaiak eta baita gurasoekin komunikazioa ere. Gure egunerokotasunean ondorioak izan ditzaketen makina bat eginkizun antolatu behar ditugu.

Tamalez, sarritan, kirolak gure neska eta mutilen garapen integralean duen eraginaz ez gara jakitun izaten eta zoritxarrez, ez da gurasoek exijitzen ohi duten funtsezko premisetako bat. Are gehiago eta hau gutxi balitz, askotan, kostatuta ahala ahalegin guztiak egiten dituzte elite kirolaria lortuko dutenaren esperoan.

Hala ere, askotan kirolak inoiz espero ez zenukeen egoeraren aurrean jartzen zaitu. Egoera hauek guztiak jokalariaentzat eta hauen ingurune hurbileko pertsonentzat zeinen garrantzitsua zaren ulertzen laguntzen dizute.

Istoria horrela hasten da: alabaren egoeraz arduratuta, ama bat Futbol Klubarekin kontaktuan jartzen da. Berehalaxe, burura etortzen zaizkizun arazoak futbolarekin zerikusia dituztenak dira, hala nola: entrenatzailearekin arazoren bat, ekipajearekin arazoren bat eta abar. Horiek horrela eta bileran bertan gerta daitekeena aurre ikusita, zeure burua aurretik prestatu egiten duzu.

Eguna heltzen da eta amak ezin du hitzik esan. Zenbait galdera egiten dizkiot: “Entrenatzailearekin arazorik al dago?” baina erantzunik ez. “Kideekin arazorik al dago?” Erantzunik ez. Azkenean, hitz eten batzuk ahoskatu eta neskatoaren generoaren identitatearekin kezkatuta zegoela aitortzea lortzen du. Neskatoak urteak daramatza gurekin klubean, eta aspalditik, jaiotzean esleitutako sexuarekin bat ez zetorren generoarekin identifikatu egiten zen.

Azkenean, neskatoak, familiari kontatzea erabaki zuen. Neska izan beharrean, bera, errealitatean, mutila zan. Denbora luzea zeraman bere barnean hori sentitzen, eta amak, ezjakintasunak eraginda, gurekin berba egitea erabaki zuen klubak zelan jokatuko zuen arduratuta. Izan ere, gizartea ez dago genero identitatearekin ezinegonatan duten haurrak laguntzeko, ulertzeko eta babesteko prestatuta, ezta kirola ere.

Kirola gure neska mutilen gizarteratzea gauzatzeko modurik eraginkorrenetako bat da eta gero eta transexualitate kasu gehiagorekin egingo dugu topo. Haur hauek, kirola egiten jarraitu nahi dute, baina diskriminatuak edo etiketatutako izango direlakoaren beldur dira. Hortaz, eredu garen heinean, adinez gutxiko ume hauen eskubideak errespetatzea ezinbestekoa da, modu honetan, eman ahal diegun laguntzarik handiena ematen baitgagoz.

Hugok mutila dela argi dauka, eta erabakia hartzen lagundu dioten bere taldearekin jolastea ikaragarri gustatzen zaio. Horrenbestez, Klubak hartutako erabakia lagunekin ekipoa jolasten

jarraitzea izan da. Egoera honen aurrean, Klubek, instituzioek eta kirol federazioek familiak babestu eta lagundu behar dituzte. Kasu honetan, gureak, Hugo laguntzea erabaki du, oraindik aurrera etortzen zaion etapa erraztuz eta aberasgarria eginez.

Hugo Pauldarrak deitutako Klubeko partaidea da, nesken Infantil B taldeko jokalaria besteak beste, eta hauen aurka jokatzen duen edozein ekipo egoeraz kontziente da. Ezer baino lehen, futbolaren aurretik, kirolaren aurretik, gure jokalaria errespetuan hezteko dago. Aniztasunaren aurrean erantzun positiboa eta aberasgarria izan dezaten lan egin behar dugu. Gainera, baliagarri ere suertatu ahal zaie kasua jokalaria, gurasoak eta abar, gizarteak duen aniztasunaz kontziente egiteko.

10. FITXA

- *Zer da Hugoren kasuan gertatu dena?*
- *Zein da bideoan agertu den istorioa? Zeri buruz doa?*
- *Zerikusirik al du Hugoren kasuak bideoan agertzen den kasuarekin?*
- *Zeintzuk antzekotasun agertzen direla uste duzue?*
- *Zein da desberdintasuna?*
- *Bi kasuetan errespetuz jokatu dela uste duzue?*
- *Horrela jokatuko zenuketela uste duzue?*
- *Kostatuko litzaizueke errespetuzko jarrera bat garatzea?*
- *Uste duzue garrantzitsua dela hau lantzea?*

11. FITXA



12. FITXA

Mikel 20 urteko mutikoa da. Jaio zenean aluarekin jaio zen, baina sexu aldaketa egitea erabaki du orain dela urtebete. Gaur, unibertsitatea hasi du eta Magisteritza ikastea erabaki du. Egia esan, lasai joan da bere lehenengo egunera, baina etxera bueltatu denean amak triste xamar ikusi du. Hori dela eta, egunagatik galdetu egin dio, eta bere erantzuna ezkorra izan da oso. Lagunak egiteko arazoak izango dituela uste du, eta beldur handia dauka hurrengo 4 urteetan gertatuko zaionagatik.

Hegoi 40 urteko mutikoa da. Bere garaian, Ingeniaritza ikasi zuen Bilboko Ingeniaritza Eskolan. Gaur egun, enpresa batera joateko deitu dute, eta hara heltzean, enpresa buruak, sexuz emakumea dela ikusi du. Harrituta, egoeragatik galdetu dio Hegoiri, eta berak, mutila sentitzen dela, eta beraz, Hegoi deitzea gustatuko litzaiokeela esan dio. Enpresa buruaren erantzuna baikorra izan da guztiz, eta Hegoi bere lehenengo egunean gustura sentitu dadin animatu du.

Ane 8 urteko neska euskalduna da. Gurasoek triste xamar ikusten dute alaba azken aldian, baina horri aurre egiteko ez dute ezer egiten. Gaur, Aneren urteak dira eta medikuarenera joatea tokatzen zaio, izan ere, 8 urtetako errebisioa egiten joan behar da. Medikuarengana heldu denean, “zelan zaude Ane?” esaldia esan dionean, negarrez hasi da. Anek gurasoen aurrean ez zuela ezer kontatuko aitortu dio medikuari, eta honek, gurasoak gelatik atera ditu. Anek bere gorputzarekin eroso sentitzen ez dela esan dio, gaizki sentitzen dela, erratatuko gorputz bat tokatu zaiola esan dio. Medikua, harrituta, gurasoei sartzeari eskatu die, eta egia osoa kontatu die. Kontsultatik irten direnean, Anek, gurasoak haserre daudela sentitu du, izan ere, ez dute bidai osoan barbarik egin. Hala ere, orain bera gustura sentitzen da barruan zuena esan ahal izan duelako.

Nekane 50 urteko emakumea da. Gaur, bere herriko eskolara joan behar da bozkatzera hauteskundeak direla eta. Autoa aparkatu eta dagokion gelara sartu da botoa emateko. NAN-a ematea eskatu diote, eta eman duenean, zerrendan izen hori agertzen ez dela aitortu diote. Nekane, egoeraz nazkatuta, abizen berdinekin Igor izena agertzen zen galdetu dio mutikoari. Mutikoak baiezkota eman dio eta Nekanek orain dela 10 urte

sexu aldaketa egin zuela eta bere izena aldatu zuela azaldu dio. Tipoak, harrituta, barre egiten hasi, eta gelan zeuden gaintzeko lankideei egoera kontatu die. Nekane, gaur, lotsatuta, haserre eta triste bueltatu da etxera.

Xabier 13 urteko umea da, eta bere herriko eskola publikoan ikasten du. Orain, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailan dago, eta nota bikainak ateratzen ditu. Gainontzeko ikasleek ez dute oso ondo tratatzen, desberdina dela uste dutelako eta askotan gutxien dute. Hala ere, Xabierrek bere aurpegi ona jarri eta aurrera begiratzea erabaki izan du beti, pertsona ausarta baita. Baina gaur, normalean baino tristeago heldu da etxera. Amak eskolan zelan ibili den galdetu dio eta Xabierrek honako hau kontatu dio: *“Gaur eskolan gertatu behar ez zen gauza gertatu zait, ama. Gelan nengoen eta komunera joateko beharra sartu zait. Askotan egoera hau saihesteko beharra daukat frustratuta sentitzen naizelako komunean aurrean gelditzen naizen bakoitzean. Esan dizudan moduan, gaur komunera joan behar izan naiz larri nobilelako klasean. Heldu naizenean, nesken komunean sartu naiz. Barruan nengoela, norbait sartu dela entzun dut, eta komunitik atera naizenean, Alaine, nire klaseko neska bertan zegoela ere ikusi dut. Bera barreka hasi da bertan zer egiten nuen galdetzen zuen bitartean, eta nik, neska sentitzen naizela esan diot. Alaine korrika bizian irten da komunitik eta klasera sartu da. Nik eskuak garbitu ditut eta klasera joan naiz bere atzetik. Sartu naizenerako jada, ikasgelak gertatu denaren berri zuen, eta barreka hasi eta estutxeak gainean botatzen hasi dira. Ez dut nahi berriro ere klasera joan nahi amatxo!. Ama, kezkatuta, mugikorra hartu eta ikastetxeko zenbakia markatu du irakaslearekin berba egiteko nahian.*

Mirenek 47 urte ditu eta Estatu Batuetan bizi da orain eta eskola batean gaztelania ematen du. Gaztea zenean, *bullying*-a sufritu izan zuen eskolan. 35 urte zituela, sexu aldaketa egitea erabaki zuen. Geroztik hona, lana topatzen saiatu da hainbatetan eta hainbatetan, baina bertan ere *mobing*-a sufritu izan du lankideengandik. Bere egoerarekin zer egin ez zekiela, eta sufritu duen guztia kontuan hartuta, bere bizitzari 360 graduko aldaketa ematea erabaki du. Orain, bere familia faltan botatzen du eta noizean behin bueltatu egiten da bisitatxoren bat egiten.

13. FITXA

MAHAI-INGURUA GIDATZEKO GALDERAK:

- *Zergatik uste duzue egin dugula ariketa hau?*
- *Zein uste duzue izan dela helburu nagusia?*
- *Zein da gehien gustatu zaizuen kasua? Zergatik?*
- *Zein da gutxien gustatu zaizuen kasua? Zergatik?*
- *Antzeko gauza gertatzen da kasu guztietan?*
- *Zergatik aukeratu dituzue sentimendu hauek?*
- *Antzeko kasuren bat ezagutu izan duzue noizbait?*
- *Noizbait entzun duzue horrelakorik gerta daitekeela? Eta normala ikusten duzue hau gertatzea?*
- *Zergatik uste duzue jokatzeko dela jokatzeko den moduan kasu bakoitzean?*
- *Irakurri izan dituzuen kasu guztien artean, zein izan da gutxien gustatu zaizuen jokabidea?*
- *Irakurri izan dituzuen kasuen artean, jokabide positiborik irakurri duzue?*
- *Zelan uste duzue jokatu zenuketela zuek horrelako kasu baten aurrean?*
- *Zer egingo zenukete zuen familia hurbileko pertsona batek bere gorputzean eroso sentitzen ez dela jakingo bazenute? Zelan uste duzue jokatu zenuketela?*
- *Uste duzue egoera aldatu beharko litzatekela pertsona hauek bizitza errazagoa izan dezaten?*
- *Demagun ikasle berri bat datorrela klasera, eta bere errealitatea kontatu egiten duela. Errealitatea, transexuala dela da. Zelan uste duzue jokatu zenuketela?*
- *Transexualitatearekiko aurreiritziak dituzuela uste duzue?*

14. FITXA**MAHAI-INGURUA GIDATZEKO GALDERAK:**

- *Mikele, Iker, Aitzole, Ivan eta Ixotzen istorioak entzun dituzue. Interesgarriak iruditu zaizkizue?*
- *Desberdintasunik nabaritu izan duzue istorio baten eta bestearen artean?*
- *Zein da gehien hunkitu ziatuen istorioa?*
- *Zuen eskubide berdinak dituztela uste duzue?*
- *Eskubiren bat urratzen zaiela uste duzue?*
- *Zelan uste duzue sentitu izan direla bizitza osoan zehar?*
- *Zelan uste duzue sentitzen direla orain?*
- *Transexuala izateak ez du genitalen aldaketa egin behar denik esan nahi. Etorkizunean, bikotekide bezala nahi duzuen pertsona ezagutzen zaudetela, espero ez dituzuen genitalak dituela esaten badizute, zer uste duzue egingo zenuketela?*
- *Horrelako bizipen bat gertatzeak, uste duzue euren bizitza pertsonalerako onuragarria dela?*
- *Mikele zuen adinera hurbiltzen den neska da. Esan dituen gauza guztietatik, zerk harritu zaitue gehien?*
- *Iker, aldiz, ume txikia da. Ikerren istoriotik, zer da gehien harritzen zaituena?*
- *Ivanen amak kontatu duen moduan, Ivanek ez du bere irudia ikusterik nahi. Zergatik uste duzue hau gertatzen zaiola?*
- *Mikele, Iker, Ivan, Aitzole eta Ixotz aurrez-aurre izango bazenituzte, zer esango zenioke huetako bakoitzari?*
- *Ikasgelatan ikusteko bideo aproposa dela uste duzue?*
- *Zerbait ikasi duzuela uste duzue?*
- *Eskoletan tratatu beharreko gaia dela uste duzue?*
- *Zer da bideotik gehien gustatu zaizuena?*
- *Bukatzeko, aipatu pertsona huetako bakoitzarentzat ezaugarri bat.*